# ttipi-ttapa

TOKIKOM

2017ko azaroaren 30a | XXXVII. urtea | **699**. zenbakia
**erran.eus**



Tomas BELZUNEGI ➜ 56

Liburua aurkeztuko du abenduaren 15ean

**Mintzodromoa** Abenduaren 1ean Lesakan eginen dute

**IGANTZI ➜ 16** Kultur Egunak abenduaren 6tik 10era

**DONEZTEBE ➜ 18** Santa Luzia feria abenduaren 10ean

**ARESO ➜ 53** Egun osoko besta Euskararen Egunean

**URDAZUBI ➜ 57** Dantxarineko aduana zaharra berriz ireki dute

**KIROL GEHIGARRIA 2017/2018**




# Baloia jokoan da

➜ 23-50

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako ehunka gaztek hasi dute 2017/2018 denboraldia taldekako kiroletan. Mila kirolari baino gehiago dira sasoi honetan futbolean, eskubaloian, saskibaloian, errugbian eta areto-futbolean ari direnak. Urtero bezala, TTIPI-TTAPAk taldekako kiroletan dabiltzan guztien datuak bildu ditu kirolari eskainitako gehigarri berezian. Ehunka aurpegi ageri diren 28 orrialde dira, eta horrekin batera, talde nagusiek denboraldi honetan dituzten helburuak ere bildu ditu TTIPI-TTAPAk.



## Life-Irekibai: Bidasoa eta Leitzarango ibaiak lehengoratu nahi dituen proiektua

2015eko uztailetik, hainbat lan egiten ari dira Bidasoa eta Leitzaran ibaietan. Hala nola, herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak egin, ehiza eta arrantza elkarteekin ibaiak babesteko protokoloak sinatu, espezie inbaditzaileak kontrolatu eta hainbat presa bota dituzte. Horietako bat eztabaida sortu duen Iturengo eta Aurtizko presa da.

ERREPORTAJEA ➜ 3-5

ZOZKETAK ➜ 71




Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi ***info@ttipi.eus*** helbidera.


TIRIKITRAUKI
DENDA
MUSIKA ESKOLA
TIRIKITRAUKI
EUSKAL JANTZIETAN
AUKERA HAUNDIA
Zuloaga Kalea 16
20280 HONDARRIBIA
Tel.: 943 644 270
emaila: denda@euskaljantziak.com
www.euskaljantziak.com


tirikitrauki
www.tirikitrauki.com
ESKU-SOINU DENDA
TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN,
SALMENTA eta ALOKAIRUA.
DISEINU EZBERDINETAKO
PANDEROEN SALMENTA.
Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE
Tel.: 943 372 817
emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com


ANE eta OHE
HEGALARIA
Antzerki
musikala
EUSKARAREN
NAZIOARTEKO EGUNA
2017
DVD
LESAKA:
Harriondoa Kultur Etxea - 18:30
Abenduak 5 (asteartea)
GURE HERRIETAKO HAUR KANTUAK ETA KONTUAK
FAMILIAN GOZATZEKO
gurea, denona
euskara
de todos y todas
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
euskarabidea



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

Ituren eta Aurtizko Igerizarretak presaren zati bat bota ondotik hartu duen itxura.

**GIZARTEA ➔** LIFE-IREKIBAI PROIEKTUA

# Bidasoa eta Leitzaran ibaiak lehengora bueltatzeko lanean

## 26 ekintza aurreikusi dituzte Bidasoa eta Leitzaran ibaiak hobetzeko

Life-Irekibai Europako programaren barrenean, Leitzaran eta Bidasoa ibaietako hainbat eraikin eta presa bota dituzte. Horrez gain, bi ibaietako espezie inbaditzaileak kontrolatzeko neurriak hartzen eta herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak egiten ari dira.

**G. PIKABEA**

Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten Bidasoa eta Leitzarango ibaiak hobetzeko proiektua da Life-Irekibai, bi ibaietako habitat eta espezien, eta bertako ibaiadarren egoera hobetzeko helburua duena. 2015eko uztailaren 16az geroztik ari dira proiektu honekin bueltaka, eta 2020ko abenduaren 31ra bitarte hainbat ekintza eginen dituzte, Eva Garcia Balguer Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari nagusiaren arabera, «gure ibaien kalitatea hobetzeko, eta habitat, uholde eta uraren inguruko Europako zuzentarauak ezartzeko neurriekin aurrera egiteko».

Gipuzkoako Foru Aldundia ari da Life Irekibai koordinatzen, baina berekin batera, Uraren Euskal Agentzia, HAZI Fundazioa eta Nafarroako Gobernua ere proiektuko bazkideak dira, azken hori, GAN-NIK Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.ren bidez. 2.999.372 euroko aurrekontua dute, baina %60-ko diru-laguntza dute Europatik.

**IBAIEN ZATIKATZEA**

Ingurumen zuzendariak azaldu digunez, «ibaien zatikatzea da Kantauri aldeko ibaiek duten arazorik nagusiena», eta horri aterabidea bilatu nahi diote Life Irekibai proiektuarekin: «presek, presa ttikiek, hodiek eta bertzelako hainbat eraikuntzek oztopoak sortzen dituzte ibaien berezko funtzionamendua eragotziz. Horren ondorioz, ekosistemak aldatu egiten dira, eta horrek eragina du espezierik sentikorrenetan, espezie horien banaketa eremua murriztua edo zatikatua gelditzen baita», dio. «Horrek eraginda, taldeak elkarren artean ugaltzen dira, eta hala, isolamendu genetikoa gertatzen da, eta bertzelako ondorioekin batera, espeziei murriztu egiten zaie presio batzuri aurre egiteko gaitasuna, espezieen biziraupena bera ere arriskuan jarrita».

Horrelakorik gerta ez dadin, 26 ekintza proposatu dituzte Like Irebairen barne, eta horien artean, aipatzekoak dira ibaietan dauden oztopoak botatzeko neurriak.

**DATUA**

**26**

**EKINTZA** proposatu dituzte Life Irekibai proiektuaren barne. Horien artean daude ibaietako oztopoak botatzeko neurriak.

LIFE IREKIBAI

## Iaz Endarlatsa eta Berako presak bota zituzten, eta aurten oraingoz, Iturengoa bota dute. Laster, Txaruta errekakoa ere botako dute.

Bota edo botatzekoak dituzten oztopo batzuk eskualdekoak dira: 2016an Bera eta Endarlatsako presak bota zituzten; 2017an Iturengoa egin dute eta Txaruta errekan ere botatzekoak dira. Halere, Txarutakoaren kasuan, Ingurumen zuzendariak erran digu, «hasiera batean, Txaruta ibaian dauden bi oztopo ttiki botatzea aurreikusia bagenuen ere, azkenean, bakarra botako dugula». Hegoalderago dagoena laster botako omen dute: «proiektua egina da». Bertzea bere horretan uztea erabaki dute: «hor bizi den burtaina arraina espezie sentsiblea da eta iberiar penintsulan halako gutti gelditzen dira. Presa botata bere habitata hondatzen ahal dugu».

Hortaz aparte, Life Irekibairen barne, ez omen dago ibaietako oztopo gehiago ezabatzeko asmorik. Hala onartu digu Garciak. Baina azpimarratu duenez, «Ingurumen Departamentuak erabiltzen ez diren eta kontzesioa zaharkitua duten presak botatzen segituko du. Hala exijitzen du Uraren Legeak». Nafarroako Gobernuaren arabera, Nafarroan 700 oztopo daude erreketan, eta horietatik 400 arrainentzako gaindiezinak dira. «Gobernuarenak diren eta kontzesioa zaharkitua duten eta erabiltzen ez diren presak botatzea erabaki dugu lehenbizi, beti ere, tokiko entitateekin adostasunera helduta. Gastu eta aukerak kontuan hartuta, ur beheratik ur gora joateko asmoa dugu».

### ESPEZIE INBADITZAILEEN KONTROLA

Oztopoak botatzeaz gain, espezie inbaditzaileak kontrolatzen ari dira Life Irekibai proiektuarekin. «Batez ere bisoi amerikarra», dio Ingurumen zuzendariak. «Desagertzeaz dagoen europar bisoiari kalte egiten baitio». Nafarroan «oraindik» bisoi amerikarra «ez dela aunitz zabaldu», dio, «eta horregatik, hain zuzen, garrantzitsua da kontrolatzea. Laginak hartuz bisoi amerikarrak jaso eta hil egiten ditugu». Dagoeneko zortzi hil omen dituzte eta hilabete honetan aztarnak ere topatu dituztela adierazi digu.

### IBAIERTZAK

Ibaiertzak lehengoratzeko egitasmoak ere badituzte: «platanondo eta txopoa bezalako espezie exotikoak kendu, eta bertako espeziak landatuko ditugu: haltzak, hurritzak, lizarrak...», dio Ingurumen zuzendariak.

### HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA

Herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak ere Life Irekibai egitasmoaren parte dira. Garciaren irudiko, «herritarrak gero eta kontzientziatuagoak daude gure ibaiak baldintza onetan mantentzearen garrantziarekin. Eskualdean badira iniziatibak». Horren erakusle, hainbat udal eta elkarterekin aritu dira elkarlanean: «Baztan, Lesaka eta Leitzan erreka garbitzen ibili gara. 200 boluntario baino gehiagok parte hartu dute erreketako zaborrak, plastikoak eta bertze hondakinak biltzen».

Eskualdeko ikastetxeekin lanean ari direla ere kontatu digu: «Lesaka-Berako Nasara bisitak antolatzen ditugu, ikasleak errekaren egoera hobetzeak duen garrantziaz eta horrek izokinari egiten dion mesedeaz ohartzeko». Ibaiak zaintzeko protokolo bat ere sinatu dute ehiza eta arrantza elkarteekin, eta horietan lehenbizikoa Baztangoarekin egin dute. «Poliki-poliki, gero eta kontzienteagoak gara». Baina oraindik ere zer egina badagoela iritzita, lanean segitzeko asmoa omen dute.

PARTE-HARTZE PROZESUA

## Ehun lagun baino gehiagok parte hartu duten prozesua

Life Irekibai proiektuaren gibelean, tokiko eragile eta agintariek ere izan dute zer errana. Ingurumen zuzendariaren arabera, «proiektua sortu zenetik esfortzu haundia egin dugu proiektua azaltzeko». Helburu horrekin udaletako ordezkariekin eta bertze tokiko eragileekin prozesu parte-hartzailea paratu zuten abian. Bidasoaldeko udal guztietako ordezkariek eta Goizueta eta Leitzako udaletakoek Life Irekibaiko jarraipen batzordeko kideak dira, eta beraiekin batera Cederna Garalur, Kantauriko Ur Konfederazioa, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentua eta GAN-NIKekoak ere bai. 2016an eta 2017an bortz saio egin dituzte, eta jarraipen batzorde hori izan da neurriak baloratu eta onartu dituena. Aldi berean, Garciak adierazi digu, «uraren kudeaketan inplikatutako 300 entitate eta partikular baino gehiagori egin zitzaiela parte hartzeko deia eta ehun bat lagunek parte hartu dutela bilera edo bisitetan. Proiektuak eta ondorioak aurkeztu dira eta adostasun maila haundia izan da».











ARGAZKIAK: WWW.IREKIBAI.EU

**1** - Endarlatsako presa bota aitzineko irudia. **2** - Endarlatsako presa bota ondoko irudia. **3** - Erreka garbiketa Leitzan. **4** - Berako Toki Ona Institutuko ikasleak Bera-Lesakako Nasara egindako bisitan. **5** - Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak eta Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkarteak Nafarroako ibai zaintzako lehenbiziko protokoloa sinatu zutenekoa.

## Ituren eta Aurtizko Igerizarreta presa

# Eztabaida haundia sortu du Aurtizko presa bota izanak

Life Irekibairen barne bota dituzten presen artean, bereziki ezagun egin da Iturengo Igerizarreta, duela hiru mende eraikia. Irail hondarrean bota zuten, baina eztabaida haundia sortu da «bere balio historikoa» nabarmentzeaz gain, presa bota duten eremuaren bueltan proiektu bat garatu nahi baitzuen Aurtizko Berotza iturgintza enpresak. Horren inguruan aritu dira Eva Garcia Nafarroako Gobernuko Ingurumen zuzendaria, Mikel Erasun Berotzako ingeniaria eta Mari Jose Bereau Iturengo alkatea.



«Gobernuak 2004an jakinarazi zuen presa ttikiak botatzeko asmoa zuela»

Eva GARCIA | Ingurumen zuzendaria



«Gobernuak saldu zigun arrain-haztegia eta beraiek hondatu digute proiektua»

Mikel ERASUN | Berotzako ingeniaria



«Gauza guztietan bezala, herrian batzuk presa botatzearen alde agertu dira, eta bertzeak ez».

Mari Jose BEREAU | Iturengo alkatea

Berotza enpresak lau proiektu aurreikusiak zituen Igerizarreta presa bota duten eremuaren bueltan. Halaxe aitortu digu Mikel Erasun enpresako ingeniariak. Batetik, «era natural eta energea beharrik gabe egindako fario arrazako arrainendako haztegia» paratu nahi zuten martxan. Bertzalde, «eguzki, eoliko hidrauliko, geotermiko, aerotermiko eta biomasaren benetako energia sistemak aztertzeko laboratorio ttiki bat» egin nahi zuten, baita «behar energetiko guztiak berriztagarriak eta bertan sortuak izanen lituzkeen landetxea» ere. Biomasa biltegia egiteko proiektua zuten laugarrena.

### ARRAIN-HAZTEGIAREN SALEROSKETA

Horretarako erosi zioten arrain-haztegia Nafarroako Gobernuari, 2016ko ekainean. Bota duten presaren ondoan dagoena. Erasunek salatu duenez, «prentsatik jakin genuen presa bota nahi zutela» eta Gobernura jo zuten. «Apirilean Eva Garcia Ingurumen zuzendariarekin eta Isabel Elizalde Landa Garapeneko Kontseilariarekin elkartu ginen. Gure proiektuaren berri eman eta presa bota beharrean bertze irtenbide batzuk proposatu genizkien», dio Erasunek. Gobernutik, ordea, «bertze alternatibak aurkeztu diren frogarik ez dagoela» erantzun dute eta gaineratu dute, «proiektu horrek ez duela ura hartzeko Ur Konfederazioaren baimenik». Bilera hartan, arrain-haztegiari buruzko bideragarritasun-txosten zehatzagoa eskatu zietela dio Erasunek eta apiril bukaerarako aurkeztu zutela. «Erantzunik ez genuela ikustean, berriz harremanetan jarri ginen, eta beraien erantzuna irailaren 8an etorri zen. Gure txostenarekin ez zeudela ados eta irailaren 12an presa botatzen hasiko zirela erran ziguten. Apiriletik irailera erantzunik gabe egon ginen».

Ingurumen zuzendariaren hitzetan, ordea, presa botatzeko erabakia ez da oraingoa: «2004an, Gobernuaren arrain-haztegiak itxi ziren urte berean, Ingurumen sailak presa ttikiak botatzeko asmoa zuela jakinarazi zuen. Geroztik bide beretik segitu da, eta horren erakusle, salerosketa eskrituran ez da presarik ageri. Gobernuak ondasunak saldu zituenean, presa ez zuen saldu». Mari Jose Bereau Iturengo alkateak, bere aldetik, presa botatzeko erabakiaren berri aspaldditik bazutela erran digu: «Berotzak proiektua aurkezterako presa botatzeko erabakia hartua zen».

Garciaren arabera, «Ingurumen zuzendaritzak eskura zuen informazioaren arabera, salmenta horren helburua industrialdea eta landetxea egitea zen, eta horretarako ez da presarik behar. 2017an jakin dugu lehengo arrain-haztegia berriz ireki nahi zutela. Presa botatzeko proiektua 2013an egin zen, eta 2015ean Life proiektuaren barne sartu zen».

### EZTABAIDA HERRIAN

Gaiak herrian eztabaida sortu duela onartu digu alkateak, «baina behatzarekin kontatutako lau egun izan dira, jada akitu da. Gauza guztietan bezala, batzuk alde agertu dira, bertzeak ez. Baina inor ez da Berotzakoen aurka joan, argudioak eta datak hor daude». Kontatu digunez, «2017ko martxoan proiektuari babesa emateko eskatuz idatzia aurkeztu zion Berotzak Udalari. Gure babesa eman genion, baina azken hitza Gobernuak du».

Irail bukaeran bota zuten presa, baina ez osoa. Garciaren hitzetan, «lantalde teknikoaren balorazioaren ondotik, presaren zati bat baino ez da bota eta balio gehien zuten elementu arkitektonikoak mantendu egin dira, Vianako Printzea Erakundearen oniritziarekin. Balio gehien duten elementu historikoak bere horretan utziz, errekari konektibitatea itzultzea lortu dugu». Alkatearen arabera, «ondare historikoaren izendapena errotak du eta hori mantendu dute. Presaren hamarretik bi eta erdi baino ez dute bota». Azaldu digunez, «orain urari bere tokia hartzen utziko diote, eta heldu den urteko urrian, paretak egin eta ingurua txukunduko dute. Proiektu polita da». Erasunek, aldiz, bertzelako iritzia du: «badirudi Life Irekibairen arduradunak kontzientzia trankilago egoteko ez dutela dena bota behar».

Baina ez daude konforme: «gure lau proiektuetatik hiruetan eragiten du presa bota izanak», dio Erasunek: «presarik gabe ezin dugu urik hartu eta urik gabe, ezin dugu arrain-haztegia egin, ezta energia hidraulikorik ekoiztu ere. Zazpi lanpostu berri ateratzen ahal zirela pentsatzen genuen». Orain, «dena ofizialki gelditua» dagoela onartu digu, baina auzitegietara joateko aukera ez dute baztertua: «Gobernuak eta Life Irekibai kudeatzen duen enpresak ez dute zuzen jokatu, eta arduradunei azalbideak eskatuko dizkiegu». Salatu duenez, «guk proposatutako aukerak ez dituzte kontuan hartu, ezta interesik jarri ere. Gobernuak saldu zigun arrain-haztegia eta beraiek hondatu digute proiektua».



**Nire txanda**
Zuriñe ZUBILLAGA

# Hau, hori, hura

Miresten zaitut. Miresten zaitut ama zarelako. Baina egiazki, miresten zaitut beti ama ez zarelako. Miresten zaitut argia zarelako, eta anbiziodună. Miresten zaitut konprometitua zarelako, eta hitzeko emakumea. Miresten zaitut errespetua besteekiko mantentzeaz gain, zure buruarekiko ere mantentzen duzulako. Miresten zaitut zure bikotea miresten duzulako, eta ardurak delegatu beharrean banatzen dituzuelako. Miresten zaitut perfektua izan nahi ez duzulako, desordenatua zarelako, burugogor samarra eta maiz oihu egiten duzulako. Miresten zaitut zure burua maite duzulako, eta zure ahultasunak ezagutzen dituzulako. Miresten zaitut zure alaba zentzuz hezten duzulako. Miresten zaitut zapaldu nahi zaituzten haiei oinak geldiarazten dizkiezulako. Miresten zaitut.

> «Miresten zaitut errespetua besteekiko mantentzeaz gain, zure buruarekiko ere mantentzen duzulako»

**Ezpala**
Aitor AROTZENA

# Otsoa, gizona eta amalurra

Ile urdina orrazten dugunok gogoan dugu telebista bakarra zeneko garaietan Felix Rodriguez de la Fuentek aurkezten zuen *El hombre y la tierra* saioa. Otso-taldeak oreinkumea inguratzeko erabiltzen zuen estrategia erakusten zigun eta bere patu beltzaren lekuko tristeak ginen. Orain bertze *manada* batzuk agertzen zaizkigu telebista-kate ugarietan, eta bada otsoen alde egiten duenik ere.

## Nabarmentzekoak



Abel BARRIOLA
Kirol Merituari Urrezko domina

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari bi Urrezko Domina emanen dizkio abenduaren 1ean, Nafarroaren Egunaren harira. Leitzako pilotari ohiak jasoko du horietako bat eta Irujok bertzea.



Ana Mari BENGOTXEA
Etxelekua gasnategia

Londresen ospatu berri den Nazioarteko *World Cheese Awards* 2017ko edizioan lau domina irabazi dituzte Urdazubin ekoizturiko gaztek: urrezko bi eta zilarrezko zein brontzezko bana.



Javier MARIÑELARENA
Malerrekako I. Rallysprint-a

*Mariñe* donamariarra omendu dute, Nafarroako Automobilismo Federazioan ez ezik, lehen aldiz egin den Malerrekako Rallysprinteko antolaketan egindako lanarengatik.

**Atzera begira ➜ 2007-XI-29 • TTIPI-TTAPA 459. zk**



## Plazaolako Bide Berdea Europan saritua

Europako Bide Berdeen III. Sariketan lehenbiziko saria lortu zuen duela hamar urte Plazaolako Bide Berdeak, 26 hautagaitzaren artean. Garapenaren eta turismoaren alorrean lortu zuen saria, bide berdea berreskuratzeko azken urteetan egin zuen lana saritzeko eta bide batez, partzuergoaren kudeaketa sistema ona baloratzeko, udal erakundeak eta enpresa pribatuak elkarlanean ari baitziren. Garai hartan Partzuergoko presidente zen Jose Mari Aierdik aipatu zigunez, «sariak indartsuago sentiarazteko balio izan digu, eta gainerako trenbide zatia berreskuratzeko gogoberritu gaitu».

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • **info@ttipi.eus**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

**2017ko harpidetza sariak**

| | |
|---|---|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 36€ |
| Leitza | 22€ |
| Hego Euskal Herria | 42€ |
| Ipar Euskal Herria , Europa | 75€ |
| Amerika eta Australia | 130€ |

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

mecna

CC BY SA

Kolaborazioak

# Jostailuak

Oihane CALDERON, Itziar DORAY eta Arantxa GAMIO
(Baztan-Bidasoaldeko gizarte hezitzaileak)

Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna pasa berria dugun eta gabonak ate jokatu ditugun honetan, JOSTAILUAK izanen ditugu aztergai.

Zuri guraso, sistema familiarrean esku-hartzea dagokizun horri, bizikidetasuna eta aukeren berdintasuna sustatzeko eta erosten dugun hori adinari eta kontsumo arduratsuari egokia izan dadin ohartarazteko, hainbat gomendio helarazi nahi dizkizugu. Familietatik ematen eta erakusten diren eredu eta baloreek indarkeria desagertuarazten laguntzen baitute eta kontsumo arduratsua sustatzen. Jostailuak haurren garapen mentala, fisikoa, soziala eta emozionala ahalbidetzen duten tresnak dira. Fantasia, irudimena, sormena eta komunikazioa garatzen dituzten tresnak hain zuzen ere eta beraz haurren izaeran, pentsaeran, jokaeran... eragin zuzena dute.

Beraz, jostailu bat aukeratzea jolasa ez denez, beraien aukeraketan argi izan dezazu:

- Neskek eta mutilek jolasteko aukera ematen dutenak, talde jolasa sustatzen dute
- Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen ez dituztenek pertsona moduan, gaitasun anitzak bultzatuz, osotasunean garatzeko laguntzen dute
- Eredu zabal eta ez itxietan jolasteko aukera ematen dutenak, mugarik/ oztoporik gabeko irudimena eta sormena ahalbideratzen dute
- Genero estereotipoei erantzuten ez dutenak
- Balore positiboak bultzatzen dituztenak
- Bizitzararako eredu berri bat parekidetasunean oinarritua, bultzatzen dutenak, errespetuan oinarritua
- Dibertigarria eta umearen interesa iraunarazten duena. Buru-argitasuna eragiten du, fantasia, irudimena eta sormena
- Bere garapen mailara eta adinera egokitzen dena
- Erabilpen aukera anitz dituena, erabilerak ez du gain kosturik, zaborrik sortzen… konpontzeko erraza dena
- Funtzionamendu arauak dituena (ICTI kodea duten jostailuak giza eskubideak eta langileen eskubideak errespetatuta fabrikatu dira, PEGI kodeak bideojokoaren edukien berri ematen duten piktogramak dira, CE kodeak jostailuak segurtasun baldintzak betetzen dituela ziurtatzen du)
- Salneurria eskaintzen dituen baloreekiko proportzionala izatea
- Bidezko merkataritzaren produktu eskaintzak, bigarren eskuko jostailuen aukera aintzat hartzea
- Kontuan izan Euskarazko Produktuen Katalogoa
- Opari teknologikoak (mugikorrak, bideojokuak) eginez gero, adinari egokituriko erabilera arauak aurrez jarri: non erabiliko den, egunean zenbat denbora, zertarako, gurasoek egingo dioten jarraipena…

Informazio gehiagorako Baztan-Malerreka-Bortzirietako Gizarte zerbitzuetara jo dezakezu!

# Zorion bila

Esteban IRUSTA MALLEA

Homosexualitatea, heterosexualitatea, bisexualitatea, transexualitatea. Sexualitateak zeresan asko eman du historian. Erlijioak eragin handia izan zuen bere sasoian. Gaur egun, beste indar batzuk, Elizak defendatzen dituen ideien kontrakoak defendatzen dituzte. Sexu askearen alde lan egiten ahalegintzen dira. Denak zoriontasunaren bila. Betidanik, gizakia, zoriontasunaren bila ibili da. Teoria asko daude gai honen inguruan. Ezaguna da Epikuro, filosofo greziaren teorIa. Berak, zoriontasunaren sekretua moderazioan zegoela defendatzen zuen. Beste batzuk eguneroko ekintzetan jartzen dute zoriontasunaren oinarria. Askotan, lorpen batzutan jartzen dugu gure zoriona. Eta lortu ondoren, behar bada, hobeto sentituko gara, baina horrek bakarrik, azken batean ez digu zoriona emango. Gaur egun, kontsumismoan jartzen dute zorionaren oinarria. Ez dira falta alderantzizko bizitza jarraitu dutenak. Hau da, materialtasunari uko egin diotenak eta ahal duten kontsumo txikienekin bizi direnak. Erlijio talde askoren fundatzaile edo sortzaileen helburua hori izan zen. Bide bat edo bestea hartu,denek zuten helburu berdina: zorintasuna lortzea. Gaur egun, materiari uko egitearen bidea ez dago modan. Horregatik,monastegiak eta konbentuak erdi hutsik daude. Gaur, zoriona beste bideetan aurkitzeko asmotan dago jarria. Bide horien artean, sexuak eta drogak parte handia dute gaur egun. Sexu munduan, homosexualitateak eta transexualitatea protagonismo handia hartzen ari dira. Homosexualitatea ez da hain berria. Historian zehar gehiago edo gutxiago ezaguna izan da, eta beti hitzegin da berari buruz. Transexualitatea berriz, askorentzat nahiko berria da, eta bere izatea hau da: Gorputzez sexu batekoa izan eta mentalitatez bestekoa. Ez daude ados bere gorputzaren sexuaz. Zoriona aurkitu nahian, beste askok droga mundura jotzen dute. Zorionaren ordez, zorigaitza aurkitzen dute. Gehiago edo gutxiago bere bizitzari kalte handia egiten diote, eta askotan bere ingurukoei ere.

Gaur egun, gazteak eta ez gazteak inoiz baino aukera gehiago dute bere ordu libretan denbora pasatzeko. Herri gehienetan kiroldegiak eta liburutegiak daude, eta inon ez da falta pilotaleku bat. Sasoi baten pilotalekuak ume eta haurrez beterik egoten ziren. Gaur egun, erdi hutsik ikusten dira. Gure etxeetako baldintzak ere askoz egokiagoak dira, orain urte batzutakoekin alderatuz. Beharrezkoak dira gazte-txokoak? Ez daude beste toki egokiagoak eta arrisku gutxiago dutenak beraien osasun fisiko eta mentalentzat? Garbi dago, egon badaudela, inoiz baino ugariago. Baina zorion bila horrek, bide berriak ezagutzera eramaten ditu gazteak, eta askotan zorigaitza besterik ez dute aurkitzen. Zorionez ez dira gehienak, baina nahi genukeen baino gehiago dira bere bizitza eta ondoan duten familikoek arazo larrietara eramaten dituztenak. Zorion osoa, betea ez da existitzen, baina askotan aukeratzen diren bide batzuk kontrako norabidera eramaten dituzte.




## Irakurleak mintzo

# Elizondon 'Karmen Etxalarkoa' Pastorala ikustera hurbildu zinetenei

Onintze ZINKUNEGI ARTZELUS ((Karmen Etxalarkoa Pastoralaren izenean)

Lehenik eta behin, mila esker Elizondon Pastorala ikustera hurbildu zineten guztiei, zuek gabe ez baitzen ikuskizunik izanen!

Azkeneko emanaldia burutu genuen han, Joxe Lizarrabengoaren herrian, hain zuzen ere, eta gustukoa izango genuke han hartutako irudiekin (bideo eta argazkiekin) bideo bat osatzea. Horretarako zuen laguntzaren bila gatozkizue eta bideo edota argazkiren bat atera zenutenek elkarbanatzeko gogoa izanez gero, gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke. Horretarako, gure helbide honetara idatzi diezaigukezue *miren_38@msn.com*, baita 669 877584 telefonoan ere whatsAppez edo dei baten bidez.

Nahiko materiala lortuko bagenu, bideo hori egingo genuke, eta bertan, nahi izanez gero, aportazioa egin duzutenen izena agertuko litzake, eta bakoitzari kopia bat oparituko genioke.

Elizondon pastorala ikusten izan zirenen artean Ttipi-Ttapa irakurtzen ez duen jendea ere bada, eta zuen esku badago horietako norbaiti mezu hau zabaltzea. Bihotzez eskertuko genizueke.

Zuen laguntza jasoko dugunaren itxaropenez agurtuko zaituztegu, baita aldez aurretik eskerrak eman ere.

Argitu nahi dizuegu bideo hau, bideo xume bat izanen dela, beraz animatu eta edozein bideo edo argazki bidali.

GORA KARMEN ETXALARKOA PASTORALA!!!

# Derbya

Joxe Fermin LIZARRAGA LAZKANO (Leitza)

Aspaldiko partez, derbya zioen Elena Azpeitia ETBko kazetariak lau eta erdiko finalari buruz hizketan hasi zenean. Pilotan ez baita ohiko hitza, arreta piztu zidan. Honekin zerikusirik ez daukaten beste adiera batzuen artean, honakoa dio Harluxet hiztegiak derby hitzari buruz: edozein kiroletan, interes handiko norgehiagoka; bereziki, gertuko ekipoen artekoa.

Jokin Altuna amezketarrak Oinatz Bengoetxea leitzarraren aurka jokatu zuen iaz lau eta erdiko finala. Beraien botileroekin euskaraz hitz egiten duten euskaldunak biak. Nire kontuen arabera, Amezketa Zaratamotik baino hurbilago dago Leitzatik. Nik bestela uste izan nuen arren, Elenaren arabera, iazkoa ez zen interes handikoa izanen; ala, ETBko kazetariarentzat nafarrak beste euskaldunetik bereziak izan behar gara. Eta iparraldekoak?...

Derbyarenari, Pablitorentzat, antza, bizkaierak pilotariei gomendioak emateko balio ez duela gehitzen badiogu: nire ustetan direna baino askoz ere txikiagoak azaldu ziren euskara zein Euskal Herria ETBren emanaldian.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



## Prentsatik bildutakoak



«Sekulako esperientzia izaten ari da hau ikasteko. Duela bi urte hasi nintzen Lankun lanean».
«Bat-batean lanez aldatuko banu, saioetara joaten eta gozatzen jarraituko nuke. Pribilegio bat da nire lanbidea kultur herrigintzarekin lotuta egotea; motibazio indartsua da egiten dudana erronka gisa hartu eta ahalik eta hobekien egiteko».

**Xabi TORRES**
Lankuko langilea
GAUR8 2017.11.11



«Gure gaurko gizartearen metaforarik biziena da harresia eta uste dut gero eta garrantzi handiagoa duela: gure gizartea gero eta harresituago ikusten dut. Harresiak izan daitezke fisikoak, etorkinek igotzen dituztenak; edo harresi bat izan daiteke gure identitatea, gure etxea, gure baratzea. Orain dena da identitatea, bai maila kolektiboan, bai pertsonalean ere».

**Luis GARDE**
Doneztebeko idazlea
BERRIA 2017.11.21

## 11 galdera labur

**Nor da Patxi Irigoien?**
Maiz galdetu izan diot, baina ez dit sekula erantzunik eman. Hark ni ere, oraindik ez nau ezagutzen.
**Saltsero xamarra omen zara...**
Egiten duzun hori pasioz bizitzea eta gustoz egitea baldin bada saltsero izatea... Hurrengoan herriko iturginari edo arotzari galdetuko diot ea saltseroa den.
**Kazetaritza afizio edo ofizio?**
Komunikazioa da erabiltzea gustatzen zaidan hitza, anitzez arlo zabalagoa da, ez dut nire burua kazetaritzara bakarrik mugatzen. Zoritxarrez, esparru hori afiziotzat duenak, zail izaten du ofizio bihurtzea, baina horretan gabiltza.
**Nor elkarrizketatuko zenukeen gustora?**
Denok daukagu zer kontatua eta uste ez duzun unean, uste ez duzunarekin, elkarrizketa eder bat izan dezakezu.
**Irratitik telebistara, ahotsetik irudira...**
Praktikaldia Gaztea irratian egin nuen. Ondotik, telebistako froga bat egin nuen eta hortik aurrerako kontuak dakizkizue. Hori guztia, ikasketetako azken urtean... lanpetuta egotea gustatzen zait.
**Umorea omen da azkeneko galdu behar dena..**
Umorea bizitzeko beharrezkoa da eta ez bakarrik azken balio bezala. Zaila den arren, gure burua guttiago guttiesten eta gutaz gehiago irri egiten ikasi behar genuke.
**Zer du Erratzuk bertze herriek ez dutena?**
Erratzuk bertan bizitzeko aukera emateaz gain, herriaren parte izateko aukera ere ematen du.
**Inguruko xokorik politena?**
Xorroxin, norbait ondoan duzula, edo bakarrik, inspirazio bila, joateko leku aproposa da.
**Nora joanen zinateke gustura?**
Hego hemisferiora, Txile, Argentina, Australia edo Zelanda Berrira.
**Zein da zoriontsu izateko sekretua?**
Nik ez dut sekreturik... Sekretuak ez dira kontatzen baina baten bat kezkatuta badago, dakienak konta dezala!
**Amets bat?**
Amets baten beharrik ez izatea.



**Patxi IRIGOIEN ➜ Erratzuar gaztea**









# BORTZIRIAK

**GIZARTEA ➔** ‘NAHI DUZUNA DUGU’ EGITASMOA

## Bidasoaren bi aldeetan euskararen erabilera sustatzea xede

Ibardin, Behobia eta Hendaiako merkataritza guneetan eta Hondarribiko ostalaritza gunean eragin nahi du Sareuskak

**TTIPI-TTAPA**

Sareuska lan sarearen baitan, Euskal Hirigune Elkargoak, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak martxan jarri dute Ibardin, Behobia eta Hendaiako merkataritza guneetan eta Hondarribiko ostalaritza gunean euskararen erabilera sustatzeko proiektua. Bidasoaren bi aldeetako establezimenduak euskalduntzeko *Nahi duzuna dugu* kanpaina abiatu dute. Eguberrietan euskararen presentzia handitzeko, 155 saltoki eta ostatuetako kudeatzaileekin elkartu eta baliabideak eskainiko dizkiete.

**MOTIBAZIOA**

Merkataritza eta ostalaritza arloko profesional eta establezimenduei zuzendua dago, bi ikuspuntu kontuan hartuta. Batetik, euskararen aldeko atxikimendu afektiboa, bertako izaera kulturalaren ezaugarria izanik, aunitz direlako euskara maite duten pertsonak eta hortaz, euskara zabaldu eta sustatzearen alde daudenak, bai bezeroen artean baita merkatari nahiz ostalarien artean ere. Bertzetik, atxikimendu efektiboari dagokionez, aunitz dira arreta arreta euskaraz jaso nahi duten bezeroak. Horregatik, establezimenduetan euskararen erabilera areagotzea bezeroei eskainitako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko tresna praktiko eta eraginkorra izan daiteke.

Establezimenduei eskainiko zaizkien zerbitzuen katalogoa diseinatuko da. Katalogoa establezimenduen artean banatuko da eta aukera emango zaie nahi dituzten zerbitzuak eskatzeko. Eskaera horiek jaso eta kudeatu ondoren, eskatutako materialak emango zaizkie.

Ageriko idazki eta euskarri komunikatiboetan euskararen presentzia areagotzeko, baliabide anitzak eskainiko zaizkie katalogoaren bitartez establezimendueri.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Sareuskak Mintzodromoa ere antolatu du abenduaren 1ean Lesakan. Argazkian, Berako Beralandetan egin zen aurkezpena.



**GIZARTEA** ➜ AZAROAREN 20AN AURKEZTU ZUTEN

# Eguneko zentroaren zerbitzua eskainiko dute Zahar Etxean

## Gehienez 10 erabiltzaile onartuko dituzte

**TTIPI-TTAPA**

San Jose Zahar Etxeko eguneko zentroaren aurkezpen bilera egin zuten azaroaren 20an. Eguneko egonaldiak betidanik izan dira Zahar Etxean, baina orain profesionalek lan egin dute zerbitzu honi forma ematen eta hemendik aitzinera, modu arautuan eskainiko da. Gaur egun, hiru erabiltzaile dituzte eta gehienez hamar izan ditzaketeela jakinarazi dute.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ortziralera 09:00etatik 17:00etara eskainiko dute eguneko zentroaren zerbitzua, baina kasuan kasu, erabiltzaileen beharretara egokitu daitekeela ere azpimarratu dute. Gosaria eskaintzen diete erabiltzaileei, eta 10:00etatik aitzinera ekintzekin hasten dira: «Zahar etxeko bizilagunekin nahasten ditugu eta gustu eta beharren arabera, hainbat taldetan banatzen ditugu erabiltzaileak. Profesionalek (fisioak, erizainak, terapeuta okupazionalak eta animatzaileak) erabiltzailea baloratu eta jartzen zaizkion helburuei begira ezartzen dira ekintzak (gerontogimnasia, errehabilitazioa, programa kognitiboak, psikomotrizitate programak...). 13:00etan bazkaltzen dute, ondotik lo kuluxka egin, telebista ikusi eta 15:00etatik 17:00etara berriz ekintzak egiten dituzte; eskulanak, jokoak, kantu zaharrak, boluntarioekin paseoak, gozogintza tailerra...», jakinarazi dute.

Itziar Larralde langileak aipatu digunez, «zerbitzu integrala da erabiltzailearentzako. Erabat irekia da eta jendea probatzera animatu nahi dugu. Erabiltzaile eta familien beharretara egokitutako plana ere egin dezakegu. Horretarako, Zahar Etxetik pasa eta bertan informazioa eskatzea gomendatzen dugu».



UTZITAKO ARGAZKIA

### Emaitza antzerki taldearen azken emanaldiak arrakastatsuak

Emaitza antzerki taldeak *La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió* antzezlana eskaini zuen azaroaren 18an eta 19an Kultur Etxean. Bi emanaldietarako sarrerak agortu ziren. Inma Uranga, Marian Yanci, Inma Danboriena eta Dominica Mercadal antzezleak izan ziren taula gainean eta beraien gorabeherekin, irriz lehertuarazi zituzten ikusleak.

### Eskolako jangelaren kudeaketa

Ricardo Baroja eskolako jantokiaren kudeaketaren nondik-norakoak Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aitzinean azaldu zituzten azaroaren 21ean, eta bertze herrietarako eredugarria dela adierazi zuten alderdi politikoetako ordezkariek. Zortzi langile ditu jantokiak eta erabiltzen dituzten produktuen %95a bertakoa da.

### Nafarroaren Eguna

Nafarroaren Egunaren harira, Tuterako Griseras eskolako abesbatzak kontzertua eskainiko du abenduaren 3an, igandean 13:00etan San Esteban elizan. Sarrera doan izanen da.

### Ba al zenekien ?

**Ohiturari eutsiz, Queimadaren Kofradiako urteko ospakizunean parte hartuko du Berako Abesbatzak abenduko lehen igandean. 12:30ean Donostiako udaletxean abestuko dute.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### Isidoro Fagoagaren zikloaren azkena

Errenteriako Andra Mari Abesbatza entzutetsuak azaroaren 11n San Esteban elizan eskainitako emanaldiarekin bukatu da urte osoan Isidoro Fagoaga tenoreari eskainitako zikloa. Urtemugako ekitaldiak epe ertainera zerbait iraunkorragoa sortzeko baliatu nahi dute *Isidoro Fagoagaren Lagunak* elkartekoek, eta familiarekin eta Udalarekin esku hartuta, Nafarroako Gobernuarekin ere harremanetan jarri dira.

MARITX
· Ingeniaritza elektrikoa · Boletin industria
· Proiektu elektrikoak · Instalazio elektrikoak
Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINBERA
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

# LESAKA

**EUSKARA** ➜ ABENDUAREN 1EAN HARRIONDOAN

## Sareuskaren Mintzodromoa herrian antolatu dute

Euskaraz ariko diren 150 bat lagun espero dituzte

**Aitor AROTZENA**

2014ko irailaren 19an Hego Lapurdiko Hiriguneak (orain Euskal Elkargoko Hego Lapurdi lurralde eremua denak), Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Bidaso Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak Sareuska, euskararen sarea sortu zuten. Sareuska egitasmoaren xede nagusia Bidasoaz bi aldeetako eskualdeetan euskararen erabilera bultzatzea eta dinamizatzea da. Helburua lantzearren 2017ra bitarteko plangintza garatu dute eta Mintzodromoa, bertan kokatzen den egitasmoetariko bat da. Aurten ere Sareuska egitasmoaren baitan, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Mintzodromoaren IV. edizioa antolatu da Harriondoa Kultur Etxean abenduaren 1ean, 10:00etatik 12:30era.

### Komunikazio eraginkorra

Irain eskolako Guraso Elkarteak *Komunikazio eraginkorra* solasaldia antolatu du azaroaren 30ean, ortzegunean 16:30etik 18:00etara, eskolako gurasoentzat, Herrikoa Elkartearen eskutik. Haurtzaindegi zerbitzua izanen da Haur Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat. Bertze aldetik, Bortzirietako IV. kontziliazio itun mankomunatua sinatu berri du Irain Guraso Elkarteak eta berdintasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina martxan jarriko dute aurten.

### 'Ane eta ohe hegalaria'

Euskararen Nazioarteko Eguna familia giroan ospatzeko *Ane eta ohe hegalaria* antzerki musikala antolatu du Euskarabideak abenduaren 5ean, asteartean 18:30ean Harriondoa Kultur Etxean. 2 eta 7 urteko haurrei zuzendua dago saioa eta sarrera doan izanen da.







ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

### Beti Gazteko argazki lehiaketako sari nagusiak Kataluniara

107 argazki aurkeztu dituzte Beti Gaztek antolatutako lehiaketara. Lehenbiziko saria Kataluniako Banyoles hiriko (Girona) Miguel Planells Saurinak lortu zuen, *En tu soledad* izeneko argazkiarekin (goitian). Honek 350 euroko sari bat eta garaikurra eskuratu ditu. Bigarren saria (250 euro eta garaikurra) ere Kataluniara joan da, Bartzelonako Cornellá de Llobregat hiriko Diego Pedra Benzal-ek eskuratu baitu, *Triste destino* izeneko lanarengatik. Kirol argazki hoberenarentzako saria, 200 euro eta garaikurra, Ordiziako (Gipuzkoa) Miguel Romero Barcok eskuratu du, *En la salida* argazkiarekin (beheitian, eskuinean). Eta azkenik, azken bi urteetan bezala, Jon Martinez Etxabarri argazkilariak herriko egile hoberenarentzako saria lortu du, *Sai arrea* argazkiarekin (beheitian, ezkerrean). 200 euro eta garaikurra eskuratu ditu lesakarrak ere. Argazki guztiak Harriondoa Kultur Etxeko Komentuko elizan daude ikusgai abenduaren 3ra bitarte. Erakusketa irekia egonen da ortzegunetik larunbatera 17:00etatik 19:30era eta igandetan 11:30etik 13:30era.









**GIZARTEA ➜** USATEGIEN RANKING-EAN BIGARREN

# 91 dozena eta 10 uso harrapatuta bukatu da denboraldia

## Abenduaren 2an Etxalarren bilduko dira Pirinioetako usazaleak

**Irune ELIZAGOIEN**

Azaroaren 20ean bukatu zen 2017ko Etxalarko sarezko uso harrapaketa tradizionalaren denboraldia. Aurten, 91 dozena eta 10 uso harrapatu dira saretan. Kopuru ona dela erran daiteke, kontuan hartuta azaroa hagitz txarra izan dela harrapaketa aldetik. Izan ere, uso bakarra harrapatu dute hilabete guztian. Egunik onena, urriaren 24a izan zen, 21 dozena eta 3 uso harrapatu ziren.

Bisita gidatuei dagokienez, aurten 300 lagun inguruk ezagutu dute barrutik ehunka urteko tradizio hau eta horietako batzuek, usoak eta beraiekin egiten den lana bertatik bertara ikusteko aukera izan dute. Bisitari gehienak Euskadi eta Nafarroatik etorri dira. Aurten, Landagain eskolako hau - rrak ere etorri dira usategietara.

Pirinioetako 9 sarezko usategien harrapaketen ranking-ari dagokionez, aurten Etxalar bigarren postuan gelditu da eta gehien harrapatu duen usategia eta txapela haundia eramango duena berriz, Napal izan da 1.163 uso harrapatuta. Bigarren Etxalar 1.102 usorekin, hirugarrena Lanne, 790ekin, laugarrena Oskix, 720rekin, bortzgarrena Lantabat 401ekin, Lekunberri 286rekin, Sara 225rekin, Aldude 145ekin eta boneta ttikia Behorlegirentzat, 99 usorekin.

Datorren abenduaren 2an, Pirineoetako sareetako usazale guztien urteroko bazkaria ospatuko da eta aurtengoan Etxalartarrei egokitu zaie bazkari hori antolatzea, beraz ez da girorik faltako egun horretan herrian.

### USAZALEEN ZOZKETA

Azaroaren 10ean egin zen zozketa. Zenbaki irabazlea 2.919a izan zen (12 uso bizirik), bigarren saria (bi lagunentzako afaria Elutsan), 2.355 zenbakia eta hirugarrena (usategietako produktu lotea), 2.590 zenbakia. Lehenengo sariak badu irabazlea, baina bigarren eta hirugarren zenbakien jabeak oraindik ez dira agertu. Beraz, zenbaki hauetakoren bat duenak, 690 267756 telefonora deitu behar du, saria eskuratu ahal izateko, hiru hilabete baino lehen.




ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

### Usategietako VI. Gastronomia lehiaketa

Bertze urte batez, aurten ere, gastronomia lehiaketa ospatu da Usategietan. Azaroaren 10ean honako 8 jatetxe hauek hartu zuten parte: Etxalarko Benta, Elizondoko Santxotena, Berako Lenkonea, Arantzako Burlada, Villa Mareille, Arantzako Aterpea, Agirre hostala eta Etxalarko Elutsa ostatua. Elizondoko Santxotena jatetxeak irabazi du berriz ere gastronomia lehiaketako Urrezko Paleta, zilarrezkoa Arantzako Burladarentzat eta berrikuntzaren paleta, Berako Lenkonea jatetxearentzat izan ziren.

### 80 urtekoak omenduko ditu Larraburuak abenduaren 3an

Larraburua jubilatuen elkarteak abenduaren 3an Bazkideen Eguna ospatuko du. Aurten 80 urte bete dituzten bazkideak omenduko dira igande honetan; aurtengoan Kontxesi Arangoa eta Mª Pilar Martikorena. 12:00etan hildako bazkideen aldeko meza izanen eta 13:30ean bazkaria Larraburua elkartean.




USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR
• Pentsu ekologikoak
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA




ERREKALDE
OSTATUA
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259
BERA

# ARANTZA

GIZARTEA ➜ BASKULAN

## Nerabezaroari buruzko guraso eskola antolatu dute abenduaren 14rako

Aitzinetik izena eman behar da

Nerea ALTZURI

Heldu den abenduaren 14an, gure gazte - txoen nerabezaroa hizpide izanen dute Guraso Elkarteak, eskolak eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu duten Guraso Eskolan.

Saioa 16:00etatik 17:30era eginen dute Baskulan, eta gurasoez gain, Toki-Ona institutuko eta Arantzako eskolako orientatzaileak, Lesakako Osasun Etxe - ko pediatriako erizainak eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuko hezitzaileak bilduko dira.

Nerabezaroaren garaiak gurasoengan sortzen dituen kezkak, eta fase honek alaba-semeetan dakartzan aldaketen aitzinean presta - tzeko azalpenak partekatuko dituzte.

Guraso Eskolara joan nahi duenak 948 635036 telefonora deituz edo *ssb@lesaka.eus* e-postara idatziz eman dezake izena.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

### 3.640 kilo janari Paris 365 Fundazioarentzat

Azken urteetan bezala, janari bilketa egin dute behartsuen alde lanean ari den Paris 365 Fundazioari laguntzeko. Igantzin eta Arantzan 3.640 kilo bildu dituzte.

### Eskolako antzerkiak

Urtero bezala, eskolako lagunek eginiko antzezlanak ikusteko aukera izanen da abenduan.

Aurten Estitxu Mentaberri ari da obrak prestatzen. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak bere gidaritzapean ari dira. Bi emanaldi eginen dituzte: abenduaren 15ean 14:30ean guraso eta herritarrentzako, eta abenduaren 20an Igantzi eta Etxalarko eskolako ikasleentzako.

Hiru antzezlan eskainiko dituzte: Haur Hezkuntzako ikasleek *Perez Sagutxoa* antzeztuko dute; Lehen Hezkuntzako 1. zikloko taldeak *Ilargia dastatu nahi zuten animaliak*; eta Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleek *Amets saltzailea* izeneko obra taularatuko dute.



ARGAZKIA: MAITE LUJANBIO

### Eskolako jantokiko langileen formazioa

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantziko eskolako jantokietako langileak formazio saioak egiten ari dira elkarrekin. Lehenbizikoa Arantzan egin dute eta bertze bi saio gehiago egitekoak dira pedagogian aditua den Rocio Martinekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Zilarrezko Paleta Burlada jatetxearentzat

Etxalarko Usategietako Gastronomia saria egin zuten joan den azaroaren 10ean eta Burlada jatetxeak aurkezturiko platerak Zilarrezko Paleta lortu zuen. Zorionak! Argazkian Oihana ageri da, Burlada jatetxeko alaba, paleta eskuan duela.









# BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probextu aukerak!




**Caser Residencial Anaka**
%5 DESKONTUA Egonaldietan, erreabilitazioan eta eguneko zentroan. Txartelduna eta bere 2. graduko senideak barne
Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

**Agara Kirolak**
%5 DESKONTUA kirol artikuluetan
%10 DESKONTUA ehiza arropetan
Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

**Alzuri Elektrizitatea**
%5 DESKONTUA etxetresnetan promozioetan ezik
Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

**Arturo**
%5 DESKONTUA arropetan
Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

**Bianditz Nekazarien Etxea**
%5 DESKONTUA pentsu ekologikoetan
Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

**Bixkiak kirol eta modako arropa denda**
%5 DESKONTUA
Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

**Bortzirudi**
DESKONTUA
%15 Kamisetetan
%10 Inprenta lanetan
%5 kopia, enkuadernazio eta plastifikaziotan 3€tik goiti
* Aurrekontutik kanpo
Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

**Elika Dietetika eta elikadura**
%5 DESKONTUA kontsultan
Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

**Intzuri Optika**
%5 DESKONTUA produktu guztietan
Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

**Irrisarri Land**
%50 DESKONTUA sarreran
%10 DESKONTUA tirolina eta penduloetan
Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

**Katea Bike**
%5 DESKONTUA konponketetan
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

**Kattagorria**
%10 DESKONTUA lentzerian
Beheko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

**Lirain Estetika eta ongizate zentroa**
%5 DESKONTUA kosmetikan
%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik
Iparraldea, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

**Lesakako Udal Kiroldegia**
%40 DESKONTUA matrikulan
Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

**Oreka nutrizioa eta dietetika**
%5 DESKONTUA kontsultan
Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

**Ostargi optika**
%5 DESKONTUA produktu guztietan
Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

**HK podologia Nora Maiza**
5 € DESKONTUA ibilkeraren azterketa digitalean
Legia, 42 | BERA
T. 688 87 81 77

**Semper autoeskola**
%10 DESKONTUA matrikulan
BERA | T. 948 63 02 98

**Semper autoeskola**
%10 DESKONTUA matrikulan
LESAKA | 948 63 82 99

**ttipi-ttapa**
%10 DESKONTUA eskeletan
Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

**txinelka**
%10 DESKONTUA erosketa guztietan
Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

**Urdi Bera**
%20 DESKONTUA urteko abonuaren matrikulan
Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

**Zela Kirolak**
%5 DESKONTUA erosketa guztietan
Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

**ZU loredenda dekorazioa osagarriak**
%5 DESKONTUA lore moztuan 30€tik gorako erosketetan
Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

# IGANTZI

**OSPAKIZUNAK ➜** ABENDUAREN 6TIK 10ERA

## Abenduko Kultur Egunak ekitaldiz beteak ate joka ditugu



Euskara batzordeak egitarau zabala prestatu du

**Nerea ALTZURI**

Euskara Batzordeak antolatutako Abenduko Kultur egunekin hasteko, abenduaren 6ko arratsaldean motibazio tailer bat eginen da. Batzordearen aspaldiko kezka da Igantzin euskara lehen baino gutiago erabiltzen dela, herritar ia guziek euskaraz jakinda ere egoera anitzetan ez dutela erabiltzen. Kezka hori herritar gehiagorekin elkarbanatzeko helburuarekin, tailer hau antolatu dute. Tailerra UEMAko teknikariek gidatuko dute, eta Baratzondon eginen da, 16:00etatik 18:00 arte. Interesa duen guziak parte hartzen ahal du, baina komeni da aitzinetik batzordeko norbaiti abisatzea.

Abenduaren 7an, ortzegun arratsaldeko 7etan, Eskolzarren, *Bide eginez. Nafarroako Ikastolak 1969tik 1991 arte. Igantziko Ikastola* izeneko solasaldia izanen da. Hizlaria Juan Luis Larraza izanen da. Larrazak oraintxe argitaratu du *Bidea eginez* liburua, eta bertan kontatzen du Nafarroako ikastolen lehen 22 urteetako ibilbidea. Akaso igantziar aunitzek ahantzia izanen dute, baina bertan ikastola izan zen, 1991. urtean sare publikoan sartu zen arte. Ikastola ttiki haren nondik-norakoak oroitaraziko ditu Larrazak.

22:00etan, berriz, Mugaldekoak taldearen kontzertua izanen da, Baratzondon. Talde beratarrak bere azken diskoa, *Galdemoduen trilogia*, aurkeztuko du.

### SASKIARI OMEN

Abenduaren 8an, ortzirale eguerdian kantu poteoa izanen da Mitxelena aita-semeekin, elkarte eta ostatuetan.

Arratsaldea, berriz, saskiari omen egiteko izanen da. Badira hamabortz urte herriak omenaldi bikaina egin ziela herriko saskigileei eta, orokorrean, saskigintzaren lanbideari. Garai hartan oraindik zenbait saskigile lanean ari ziren, baina gaur egun dagoeneko inor ez da herrian lan horretan ari. Horregatik, batzordeak berriz saskigintzarekin lotutako zenbait ekitaldi antolatu ditu, denak Baratzondon.

Arratsalde guzian saskia egiteko tresnen erakusketa izanen da, eta duela hamabortz urte egindako argazkiak ere ikusgai izanen dira. 16:00etan haurrentzako saskigintza tailerra izanen da. Jesusmari Garberekoa arituko zaie saskia nola egin irakasten. 18:00etan, *Azken saskia* dokumentala eskainiko da. Oier Fuentesen dokumental horrek Euskal Herrian, Espainian, Afrikan, Errusian nahiz Quebec-en egindako festibaletan parte hartu du, eta hainbat sari jaso ditu. Hamar minutuko dokumental honetan, Jesus Mari Sein agertuko zaigu, gaztainarekin saskiak lehengo eran egiten zituen azken nafarra. Ikus-entzunezko horretan bere ofizioa eta bizitzaren errepaso bat egiten da, eta bere azken saskia egiten ikusten da, ogibide horren desagerpenaren arrazoien inguruko hausnarketa bultzatuz. Eguna goxo akabatzeko, Biltokin opil jatea izanen da, 18:30etik aitzinera.

Abenduaren 9an, larunbat arratsaldeko 4etan hasita, haurrentzako perkusio tailerra izanen da eskolan, Zozongó taldearekin, eta ondotik batukada emanaldia eginen dute herrian barrena. Akabailan haurrentzako berendua ere izanen da. 21:00etan, helduentzako antzerki emanaldia izanen da Baratzondon. Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreek *Putinen guardasola* antzezlana eskainiko dute. Ray eta Nik musikarien paperean sartuko dira bi aktoreak. Lehendakariak euskaldun guztiak batuko dituen himnoa nahi omen du, eta musikari horiei egin omen die enkargoa.

Kultur egunei akabaila emateko, abenduaren 10ean igande eguerdian hasita herriko dantza taldearen emanaldia izanen da, herrian barrena.



**GIZARTEA ➔** ABENDUAREN 2AN (18:00)

# Ulibeltzak elkarteak urteko batzarra eginen du larunbatean

Bertze gaien artean, herriko bestetako kontuak aztertuko dituzte

**Maider PETRIRENA**

Ulibeltzak elkartearen urteko batzar orokorra abenduaren 2an, larunbat arratsaldeko 6etan, izanen da. Gaizerrendari dagokionez, azken aktaren onespenaren ondotik, bazkideen altak eta bajak ez ezik, aurtengo herriko besten kontuak aztertuko dituzte. Ondotik, eskari edota galderen txanda izanen da.

## Ariztigain kanpinean denboraldi bukaera

Ariztigain kanpinean denboraldi bukaerako besta eginen dute abenduaren 9an, egitarau zabalarekin.

- 16:00etan: Haur-jokoak.
- 17:00etan: Mus txapelketa.
- 18:00etan: Bingoa.
- 21:00etan: Denboraldi bukaerako afaria. Menua: Ahate moussa pasazko ogiarekin, otarrainxkako entsalada epela, txanpiñoi eta hirugihar risotoa, entrekota eta Sunbillako kanutilloak. Ardoa, ura, sagardoa, ogia, kafea eta kopa.
- Ondoren Endara deejays.

Ospakizunean parte hartzeko abenduaren 5era bitarte apunta daiteke 948450540 telefonora deituz.

## Mendizaleak Gorbeara

Sunbillako mendigoizale taldeak abenduaren 4an, astelehen goizeko 6etan, Gorbeara joateko hitzordua egina du. Animatu!

## Iruñean kantuan

Bortzgarren urtez Baluarten ospatu zen Angel Mariezkurrenak antolaturiko *Iruñean Kantuan* jaialdia azaroaren 11n. Bertan herritar kuadrilla bildu zen tarte goxo horretaz gozatzeko. Zorionak!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Mendaur taldeko herriko musikariak Aurtizko bestetan

Mendaur trikitixa pandero eskolak urtero bezala Aurtizko bestetan emanaldi bikaina eskaini zuen. Horien artean herriko June Aiesa Rekarte eta Ane Zelaieta Indakoetxea trikitilariak eta Maialen Aiesa Rekarte, Aroa Bertiz Juanenea eta Iraide eta Garaine Iriarte Petrirena panderojoleak parte hartu eta gozatu ere egin zuten. Eskerrik asko berriz ere emanaldi hori antolatzen duten Oihana, Arkaitz, Ekiñe eta Ainara irakasleei eta zorionak parte-hartzaile guztiei.




UTZITAKO ARGAZKIA

### Koldo Herrera bigarren sailkapen orokorrean

Azaroaren 12an kirolaren tartea izan zen herrian. Batzuk Behobia-Donostian parte hartzeko aukera izan zuten eta Koldo Herrera Urrozek bere azken karreran parte hartu zuen Lizarran. Bertze behin bigarren postua lortu zuen, baita sailkapen orokorrean ere. Horrez gain Nafarroako Federazioak urteko karrera guztiekin modalitate bakoitzeko hiru onenak saritzen ditu kategoriaka. Koldok, mendiko bizikletan, infantil mailan, bigarren onenaren saria lortu du.







# DONEZTEBE

**OSPAKIZUNAK ➜** ABENDUAREN 10EAN (IGANDEA) ETA ABENDUAREN 13AN (ASTEAZKENA)

## Santa Luzia eguneko feria eta titare ematea prest dituzte

### Iñaki Perurenak 'Harria Maitasun historia' emanaldia eskainiko du

**Marga ERDOZAIN**

Iaz bezala, asteburu luze honetan Udalak antolatuko du Santa Luzia feria. Bertan gure inguruetako hainbat eskulangileek erakusketa-salmenta eginen dute. Feria honetan ere Erreka Guraso Elkartekoek elkartasun ekimen bat burutuko dute ANAren alde (Nafarroako Autismoaren Elkartea). Ekimen honetarako jostailu bilketa antolatu dute feria egunean saltzeko. Udalak kale animazioa ere paratuko du. Arratsaldeko 6etan Iñaki Perurenaren *Harria Maitasun historia* emanaldia ikus eta entzuteko aukera izanen da Herrigunean (sarrera debalde).

Abenduaren 13an (asteazkena) Santa Luzia Egunean Titarearen ekimena ospatuko da. Urtero egiten den bezala, herriak jostun lanetan aritutako pertsona bat omenduko du bere ibilbidea goraipatuz eta lanbide horri aitortza eginez (Zilarrezko Titarea eta omenalditxoa mezaren ondoren burutuko da).



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA
Luis Gardek bere azken poema liburua aurkeztuko du ortzirale arratsaldean.

### Luis Garderen azkena

Abenduaren 1ean (ortziralean) II. Udazken literarioaren baitan, Luis Garderen *Barbaroen baratzean* azken obraren aurkezpena eginen da 19:30ean liburutegian. Garderen poemak biltzen dituen iburu honekin aipatu Bale Zuria argitaletxe berria estreinatuko da.

### Nafarroaren Egunekoak

Abenduaren 3an, Nazioarteko Euskararen Eguna eta Nafarroaren Eguna ospatzeko bi ekimen izanen dira: 13:00etan Mendi Abesbatzak Nafarroako Ereserkia abestuko du elizan. Nafarroako Gobernuak antolatu du emanaldia. 17:30ean zineman *Gatz, Titiritortu basatia* txotxongilo emanaldia izanen da (sarrera doan).

Abenduaren 7an *Baztan-Bidasoa* liburuaren aurkezpena arratsaldeko 7etan Herrigunean eginen da.

### Ba al zenekien ?

**Eguberrietako kontzertua abenduaren 15ean egінen dela? Buru-belarri ari dira Mendi Abesbatzakoak sorpresaz beteriko emanaldia attoko-attoko egun horretarako prest edukitzeko.**




## FLASH

### Adinekoentzat gailuak

Intzakardi parkean adineko jendearentzat gailuak paratu ditu Udalak. Herritarren eskaera hori kontuan hartu du Udalak eta lau gailu jarri dituzte.

### Osasun Zentroko urbanizazioa

Osasun zentroko urbanizaziorako lana Ape-zetxea Anaiak enpresari eman zaio. Udalak baimena emanen du obra hori hasteko, eta hori gauzatuta, Osasunbideak zentroaren obrak hasiko ditu.

### Herriguneko plana

PEAU edo herrigune historikoko plana ezagutu nahi duena udaletxetik pasatzen ahal da: bilkura aretoan planoak eta dokumentu guztiak ikusgai izanen dira. Zalantzak, kezkak ere alkateari eta bere taldeko kideei luzatzeko aukera bada (09:00-etatik 14:00etara).

### Autismoaz hitzaldia

Autismoari buruzko hitzaldia eskainiko dute gurasoendako azaroaren 30ean, ortzegunean, 15:00etan ikastetxean, Guraso Elkarteek antolatutako formakuntzaren baitan.



**TXIRRINDULARITZA ➜** 23 URTEZ BEHEITIKOETAN

# Bertze txapel bat eskuratu du Javier Seinek

## Diario de Navarra Opena irabazi du iturendarrak

**Arkaitz MINDEGIA**

Lanean fin segitzen du SH Metalgraf taldean ari den Javier Sein iturendar gazteak. Eta lortu dituen emaitzak dira bere lanaren seinale, berriki bertze txapel bat eskuratu baitu mendiko bizikletarekin. Diario de Navarrak antolatzen duen Openaren aurtengo edizioan, bera izan da txapeldun 23 urtez beheitikoen kategorian. Open horren baitan, zortzi proba jokatu zituzten. Lizarran jokatu zuen azken lasterketa eta hori irabazteaz gain, sailkapen orokorrean ere txapeldun gelditu zen Sein.

### Sokatiran ere txapela

Lesakako Beti Gazte sokatira taldean ari den Oihana Mindegia aurtiztarrak bertze txapel bat ekarri du herrira. Nafarroako Goma Gaineko Sokatira txapelketaren barne, 550 kilokoen txapelketa mistoa irabazi dute Beti Gaztekoek eta tartean ibili da Oihana.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

**Besta parte-hartzaileak ospatu dituzte Aurtizen**

Giro ederrean joan ziren azaroaren 9tik 12ra egin zituzten Aurtizko sanmartinak. Eguraldi kaxkarra izan arren, antolatutako ekitaldi guztiak parte-hartzaileak izan ziren eta adin guzietako jendeak gozatzeko aukera izandu zuen, bai bertakoek eta bai kanpotik etorritakoek ere.

***Ba al zenekien***

**Azaroaren 12an egin zen Behobia-Donostia lasterketa ospetsuan hiru herritarrek parte hartu zutela? Ainhoa Baleztena eta Ibai Berregi aurtiztarrek eta Josetxo Ruiz Lopetedi iturendarrak akitu zuten lasterketa.**



# ZUBIETA



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL
Mieltxo Mindegia kontent, Iker Vicente txapeldunaren ondoan Donezteben.

**KIROLA ➜** NAFARROAKO AIZKORA TXAPELKETA NAGUSIAREN FINALA

## Mieltxo Mindegia hirugarren Donezteben

Iker Vicente eta Rekondoren atzetik

**Fermin ETXEKOLONEA**

Mieltxo Mindegia herritarrak maila bikaina eman du Nafarroako aizkora txapelketan. Doneztebeko ferietan jokatutako finalean hirugarren izan zen, Iker Vicente eta Jon Rekondoren atzetik.

### Genero indarkeria

Emakumeenganako Bortizkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, joan den ostiralean *Emakumeak film laburrean* zineforuma izan zen eta igandean *Volar* dokumentala ikusgai.

### Egur loteak

Udalak egur loteak aterako ditu. Abenduaren 1ean akituko da eskaerak egiteko epea. Baldintzak udaletxean daude eskuragai.

# ELGORRIAGA

**TOKA TXAPELKETA ETA GUZTI**

## Zorroilo elkartearen eguna giro onean ospatu dute

**Mattin LARRALDE**

Zorroilo elkarteko urteko besta ospatu zen. Bazkideen artean toka txapelketa jokatu ondotik, ongi animatutako bazkaria izan zuten. Bazkalondoa urteroko bingoa izan zuten, besta giro ederrean akitzeko.

Bertze aldetik, urtero bezala, gaztain jatea antolatu dute gurasoek. Bertatik eta kanpotik ere jende aunitz hurbildu da.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE
Zorroilo elkarteko bazkideak toka txapelketan.




ONGI ERABILI
HIL EDO BIZIKOA DA
112
bularreko minez nago, ezin dut arnasa hartu!
Bai
Belagoara joateko errepidea ongi al dago?
Ez
ERREPIDEAK T 848 423 500 carreteras.navarra.es INFO METEO meteo.navarra.es
zein da hurbilen dagoen guardiako farmazia?
Ez
GUARDIAKO FARMAZIA T 948 226 000 farmaciasdeguardia.navarra.es
112 TELEFONOA EZ DA INFORMAZIOKOA
Urgentzia eta larrialdietarako telefonoa da.
Beharrezkoak ez diren deiek benetako urgentziako deien kudeaketa oztopatzen dute.
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

# ARKUPEAK

**GIZARTEA** ➜ AZAROAREN 16KO BILKURAN

## Heldu den urteko jarduerak antolatuta dituzte dagoeneko

Abenduko bilkuran banatuko da 18. buletina, jardueren inguruko zehaztapenekin

**Fernando ETXEBERRIA**

Urte bukaera hurbildu ahala, eta orain, urteko azken bidaia, Lanzarotera, egin ondotik, heldu den urtera begira hasiak dira Arkupeak elkarteko kideak. Bertzeak bertze, heldu den urterako jarduerak antolatuak dituzte dagoeneko. Horiek, zehaztapenez horniturik, 18. buletinean biltzen ari dira, eta abenduan eginen den bilkuran, elkarteen ordezkarien artean, banatzea aurreikusi dute.

### Boluntariotza eta berdintasun planak

Azaroaren 16ko bilkuran, interes orokorreko gaiak jorratu zituzten. Hala, aitzineko bileran bildurikoak irakurri eta onesteaz gainera, Nafarroako Kutxa Fundaziora bidali beharreko boluntariotza eta berdintasun planak aurkeztu zituen elkarteko presidenteak. Boluntariotza planaren aurkezpenean, bertzeak bertze, plan horretan esku hartzen duten Arkupeak elkarteko kideek ordain ekonomikorik gabeko lana egiten dutela azpimarratu eta eskertzeko aprobetxatu zuten.

Berdintasun planari dagokionez, berriz, planean parte hartzen duten 2.600 bazkideren, emakumezko zein gizonezkoen, parekidetasuna nabarmendu nahi izan zuten: zuzendaritza-batzordean bortz emakume eta lau gizon; eta ordezkari-batzordean 25 emakume eta 14 gizon daudela adieraziz. Administrazioaren kudeaketari dagokion postu bakarra emakumezko batek kudeatzen duela jakinarazi zuten. Halaber, irakaslegoaren erdiak emakumeak eta bertze erdiak gizonezkoak izaten ahalegintzen direla ere argitu nahi izan zuten. Horrela, estatutuen arabera, bazkideen onarpenean diskriminaziorik ez dagoela ikusarazi zuten.

Azkenik, bi planen aurkezpenaren ondotik, bilkura borobiltzeko, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2018ko dirulaguntza deialdiaren harira, 511.608 euroko gastu eta diru-sarreren proiektu orokorra aurkeztu zuten.



FERNANDO ETXEBERRIA

Berdintasun eta boluntariotza planak izan zituzten hizpide.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Urteko azken bidaia egin du Arkupeak Elkarteak

Arkupeak Elkarteko 45 bazkide Lanzaroten izan ziren azaroaren 8tik 15era bitarte. Argazkian ederki ikusten den moduan, astebeteko oporraldiaz gozatzeko aukera izan zuten.





ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

### Elkarteko kideen eskulanak ikusgai Donezteben

Doneztebeko ferien harira eginiko erakusketan, jende andana bildu zen elkarteko kideen lanak ikustera. Egurrezko lanen artean pirograbatu tailerrean parte hartu dutenen lanak ez ezik, Migel Arregi, Victor Orbegozo, Luis Esarte, Migel Etxeberria, Santi Hualde, Jose Ignacio Telletxea eta Javier Telletxearen eskulanak izan ziren ikusgai. Jose Luis Olaizolak, Pedro Bañaresek, Milagros Estebanek eta Patxi Ruizek margolanak plazaratu zituzten. Bertzalde, Sagrario Agerreberek eta Carmen Berak, gurutze-puntuz eta orratzez eginikoak, hurrenez hurren, erakutsi zituzten. Azkenik, argazkigintza alorrean, Margarita Meco, Blanca Bertiz eta Fernanfo Etxeberroaren lanak izan ziren ikusgai.


En la vida,
como en el
deporte,
Bizitzan,
kirolean
bezala,
JUEGO LIMPIO_
_JOKO GARBIA
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

# ERRUGBIA



ARGAZKIA: MENDITARRAK BRT
Menditarrak-BRT errugbi taldeko seniorrak Lekarozen egindako entrenamendu batean.

## Menditarrak-BRT taldea errugbia lantzen darrai

### Senior taldeaz gain, harrobi sendoa mantentzen du, La Única eta Irungo taldeekin lanean

Menditarrak-BRT Rugby Taldea aurten ere Euskal ligako lehenengo mailako txapelketan parte hartzen ari da. Bertze kategorietan, berriz, 18 urtez beheitikoek Iruñeko La Únicarekin osatu dute taldea eta ttikiagoek Irungo Txingudirekin. Horrela jende nahiko izatera ailegatzen dira partidak jokatzeko. Urte batzuk daramatzate horrela lanean eta esperientzia positiboa izaten ari da. Modu honetan, etorkizunerako oinarri bat izatea eta afizioa gazteengan sortzea espero da.

Seniorren taldean, belaunaldi erreleboa alde batetik eta plantilla justua izaki bertzetik, aurtengo erronka taldea sendotzea da, mailari eutsiz. Hasiera ona izan ez duen arren, «pittanaka sentsazioak hobetzen ari dira eta liga hasierako dinamikari buelta eman nahi diogu ahal bezain fite».

**MENDITARRAK BRT SENIORRAK**

| | |
|---|---|
| Mattin APEZETXEA BERHO | ORONOZ |
| Joseba ARIZMENDI APEZETXEA | ORONOZ |
| Julen ANZIZU MARCKERP | LIZASO |
| Beñat ETXEKOLONEA DIEZ | ZUBIETA |
| Mikel EUGI ILUNDAIN | BEUNTZA |
| Jon IRIARTE ARRIETA | ARIZKUN |
| Iñaki IRAIZOZ PEREZ | ETSAIN |
| Julen LINZOAIN EUGI | IRAGI |
| Josu MARTINEZ SAN JOSE | ELIZONDO |
| Joseba MITXELENA LARZABAL | IRURITA |
| Iban MUTILBA RUIZ DE AZUA | ELIZONDO |
| Iñaki PERURENA IRIGOIEN | ELIZONDO |
| Fermin LARRALDE CORDOBA | ELIZONDO |
| Juan Angel PEROTXENA URANGA | ELIZONDO |
| Ander OSKOZ GAGO | DONEZTEBE |
| Jokin URREAGA ETXENIKE | ELBETE |
| Oscar VILLABONA ZENOZ | LATASA |
| Jon ZUBIRI AZANZA | ARIZKUN |
| Miguel SOBRINO ETULAIN | ELIZONDO |
| Andoni SALABERRIA PRADOS | MUGAIRI |
| Peio GASTEARENA ANSALAS | MUGAIRI |
| Jon Ander ELORZ LANDA | IRUÑA |
| Hasier IRATZOKI ALTZUGUREN | ETXALAR |
| Xabier IRURETAGOIENA IRATZOKI | ELIZONDO |
| Iñigo LIZASOAIN UTERGA | ELIZONDO |
| Mikel OLAZAR BAZTERRIKA | ITUREN |
| Xabier REDIN BARBERENA | ARRAITZ |
| Ruben OZKARIZ MARTINEZ | OLAGUE |
| Johanes MOLINUEVO URRUTIA | ELBETE |
| Jokin MAIA DAGERRE | ELIZONDO |
| Javier BORDA REDIN | UHARTE |
| Imanol GOIENETXE ITURBIDE | IGANTZI |
| Iban Iñaki MUGIKA | KANBO |
| **Entrenatzailea:** Manex AIZPURU | ORONOZ |
| **Entrenatzailea:** Antton HARISPE | AMAIUR |

**MENDITARRAK BRT SUB18**

| | |
|---|---|
| Alexander SANTESTEBAN OPOKA | IRURITA |
| Manex ETULAIN BIDEGAIN | ARIZKUN |
| Oier NEOL BURLADA | ARIZKUN |
| Julen IRIARTE AZKARRAGA | ARIZKUN |
| Eduardo GALAIN ALCOCER | IRAIZOZ |
| Xabier MITXELENA LARZABAL | IRURITA |













## MENDITARRAK BRT SUB16

| | |
|---|---|
| Eñaut BERISTAIN IRIARTE | ARIZKUN |
| Unai AGINAGA ETXAMENDI | ELIZONDO |
| Ellande ALTZUGARAI ARIZTEGI | ELIZONDO |
| Urki NEOL BURLADA | ARIZKUN |
| Mikel GOROSTIDI JAIMERENA | ARIZKUN |
| Aimar RODRIGUEZ ETXANDI | MUGAIRI |
| Jokin BEIKA PAGAZAURTUNDUA | AMAIUR |
| Eneko FREIRE PEROTXENA | OLAGUE |
| Xuban LAKOSTA DANBORIENA | IRURITA |
| Gorka JAURENA IRISARRI | ELIZONDO |
| Julen ENPARAN OJANGUREN | IRUN |
| Ekain HIRIBARREN GARCIA | IRUN |
| Oihan ARRUABARRENA CENIZO | IRUN |
| Jual ALAGON UGANI | IRUN |
| Xabier BERROA SEIN | IRUN |
| Amy DIAME DONOSO | IRUN |
| Aritz REKARTE ARBELAITZ | IRUN |
| Hodei SANCHEZ ZABALEGI | IRUN |
| Lander VIELBA GOMEZ | IRUN |
| Martxel PETRIKORENA LARRAZA | IRUN |
| Unai URRACA ROMERO | IRUN |
| Mikel CARVAJAL ESCOBAR | IRUN |
| Nikolas LOPEZ VELEZ | IRUN |
| Amets AGINAGALDE MONTES | IRUN |
| Ivan MARTIN GARCEA | IRUN |
| Unax DOMINGUEZ ELGEZABAL | IRUN |
| **Entrenatzaileak:** | |

## MENDITARRAK BRT SUB14

| | |
|---|---|
| Iñaki JUBERA IDOATE | LEKAROZ |
| Junes ALTZUGARAI PERNAUTE | ARIZKUN |
| Antton FERNANDEZ BIDEGAIN | ARIZKUN |
| Unai MUGIRO LARREGI | ARIZKUN |
| Beñat NEOL BURLADA | ARIZKUN |
| Julene ETULAIN BIDEGAIN | ARIZKUN |
| Unai ITURBIDE LAZARO | ELIZONDO |
| Beñat VIELA MENA | IRURITA |
| Julen ARRIADA IRIGOIEN | AZPILKUETA |
| Asier EZKURRA ITURRALDE | URRITZOLA |
| Alex IRIARTE ARRIETA | ARIZKUN |
| **Entrenatzailea:** Jon IRIARTE | |

## MENDITARRAK BRT SUB12

| | |
|---|---|
| Eñaut ALTZUGARAI ARIZTEGI | ELBETE |
| Julen URRUTIA TELLETXEA | ARRAIOZ |
| Urlei ETXANDI LAURNAGARAI | ELIZONDO |
| Ainhoa EZKURRA ITURRALDE | URRITZOLA |
| Lorea ETXEPARE | ARIZKUN |
| Beñat EZKURRA | ARRAIOZ |
| Aimar FERNANDEZ | ARIZKUN |
| Laurentx LARRALDE | ARIZKUN |
| Xabat ALTZUGARAI ARIZTEGI | ELBETE |
| Iker EZKURRA | ARRAIOZ |
| Ekain ARRUPEA IRIBARREN | LEKAROZ |
| **Entrenatzailea:** Egoitz GAMIO | |

## MENDITARRAK BRT SUB10

| | |
|---|---|
| Peio EZKURRA ITURRALDE | URRITZOLA |
| Ekain ELIZALDE MENA | ARIZKUN |
| Gartxot IRIBARREN ALEMAN | AMAIUR |
| Aimar TRINIDAD | ELIZONDO |
| Kaiet ALEMAN ELIZONDO | ELIZONDO |
| Axular ALEMAN IRISARRI | ELIZONDO |
| Oier MIGELTORENA | BERROETA |
| Eneko SAGARZAZU | SUNBILLA |
| Kemen SAGARZAZU | SUNBILLA |
| Xuban TORRECILLA ITEGI | ZUBIETA |
| Urki ARAGON GARROTE | ZUBIETA |
| Enaitz LAZKANO | ARRAIOZ |
| Aiert FAGOAGA | ARRAIOZ |
| Ganix ALUNDA | ARRAIOZ |
| Oier IBAÑEZ | IRURITA |
| **Ent.:** Asier ARRETXEA eta Maika IRAIZOZ | |

## ESKUBALOIA

# Baztango Kirol Taldeak senior taldea berriz ere kantxaratu du

### Ainhoa Astiz jokalari ohiak hartu du «ilusioz eta gogotsu» hasi den talde nagusiaren ardura



UTZITAKO ARGAZKIA
Berriz ere talde seniorra kantxaratu du BKTk, nahiz eta jokalari gehienak jubenilak izan.

Joan den urtean ez zuen talde seniorrik kantxaratu Baztango BKTk, baina aurten berriz hasiak dira, Ainhoa Astiz jokalari ohia entrenatzaile dutela. «Ilusioz eta gogotsu hasi dugu denboraldia. Urtebete eta gero berriz ere talde seniorra ateratzea aunitzen ametsa zela pentsatzen dut, ez bakarrik jokalarientzat, baita zaletueantzat ere. Azken batean, Baztanen hainbertze urtez bizirik egon den emakumezkoen eskubaloia ezin zelako itzaltzen utzi», aipatu digu lekaroztarrak. Horretarako, arras talde gaztea dute, «hiru laurden jubenilak dira eta beteranetan helduenak 23 urte ditu». Hori dela eta, ligako bertze talde - en mailara egokitzeko lan handia egiten ari dira, batez ere, alor fisikoan (Dario Trantxeren laguntza dute horretan). «Egia da kriston potentziala duela taldeak, baina hasierak ez dira aunitzetan errazak izaten eta horretarako, lana eta denbora behar da. Hala ere, taldea gogotsu eta ilusioz dago eta hori da garrantzitsuena: indartsu eta elkartuta bagaude, lehenago edo beranduago etorriko dira emaitzak», dio Astizek.

Kirolaz gozatzea da helburu nagusiena eta ideia horrekin entrenatu eta jokatu ohi dute: «Gozatzen ez baduzu, seinale txarra –aipatu digu Astizek–. Baina era berean, badago taldeak duen kalitatea eta indarra erakusteko gogoa, beraz, partidaz partida, sailkapenean goitian egoteko ilusioa dago. Nire iritziz, lesioek taldea errespetatzen badute eta orain arteko ilusio eta indarrarekin lan egiten segitzen badugu, taldeak txapeldunen fasera sailkatzea mereziko luke».

Harrobian egiten den lana ere azimarratu du: «Benjaminetatik hasita, seniorrak arte: denak gara oraina eta denak gara etorkizuna». Kiroldegira taldeak babestera etortzen diren zaletuak ere eskertu ditu.

BAZTANGO KIROL TALDEAK

| BAZTAN BKT: NESKA SENIORRAK | |
|---|---|
| Jessica IGNBINOVIA IGBINADOLOR | ZUBIETA |
| Aurkene PERURENA AGIRRE | ELIZONDO |
| Eider ELIZAINTZIN IRUNGARAI | GARTZAIN |
| Paula URRUTIA GOIENETXE | ELIZONDO |
| Leire MUGIRO LARREGI | ARIZKUN |
| Ekhine TXOKARRO EZKURRA | NARBARTE |
| Lierni OTEIZA MIGELTORENA | ORONOZ |
| Miren GONZALEZ GALARREGI | ELIZONDO |
| Nekane ASTIZ GOÑI | LEKAROZ |
| Maialen GOÑI IRIBARREN | ELIZONDO |
| Itxaso ETXENIKE BIGURIA | IRURITA |
| Lucia TRANTXE URTASUN | ELIZONDO |
| Jone LARRALDE CORDOBA | ELIZONDO |
| Ainhoa GALAIN ELIZALDE | IRAIZOTZ |
| Laira DIAZ FERNANDEZ | ERRATZU |
| Naroa BERHO SANTOS | ORONOZ |
| Oihane IRIARTE ELIZAINTZIN | ARIZKUN |
| Maider ALTXU AIZPURU | ORONOZ |
| Olatz SUBIZAR TRANTXE | LEGASA |
| Alaia IRIBARREN GONZALEZ | DONEZTEBE |
| Amaia ASTIZ IZETA | ELIZONDO |
| Ane BERHO MIGELENA | ORONOZ |
| Leire RAMOS IRAOLA | BERROETA |
| **Ent.:** Ainhoa ASTIZ GOÑI | LEKAROZ |



# ESKUBALOIA







## BAZTAN BKT: NESKA KADETEAK

| | |
|---|---|
| Nerea BARBERENA URRUTIA | ERRATZU |
| Jone OTEIZA ALTZUGUREN | ELIZONDO |
| Elena URRUTIA GOIENETXE | ELBETE |
| Maialen ITURBIDE LAZARO | ELIZONDO |
| Izaro DENDARIETA ESKUDERO | IRURITA |
| Maria ORTIZ ESTABOLITE | GARTZAIN |
| Haizea EUGI GAMIO | IRURITA |
| Nahia BAILON URTASUN | IRURITA |
| Leire ARRAZTOA ALEMAN | IRURITA |
| Elena SOBRINO ETULAIN | ARIZKUN |
| Saioa ETXART ETXEBERRIA | ERRATZU |
| Ane BAILON ITURRALDE | ELIZONDO |
| Leire GONZALEZ GALARREGI | ELIZONDO |
| Amaia ARIZALETA ITURBIDE | ERRATZU |
| Hana IRISARRI URRUTIA | ELBETE |
| **Entrenatzailea:** Iñaki URIARTE | ERRATZU |

## BAZTAN BKT: NESKA INFANTILAK A

| | |
|---|---|
| Olatz ITURRALDE ARRETXEA | ZOZAIA |
| Naroa BALLARENA GOIENETXE | ELIZONDO |
| Naia IRIARTE ARRIETA | ARIZKUN |
| Cecilia ADIN URTASUN | ELIZONDO |
| Haize OIARTZABAL AIZPURU | IRURITA |
| Julene BAILON URTASUN | IRURITA |
| Ainara GOÑI ALMANDOZ | ELIZONDO |
| Miren IRIGOIEN INBULUZKETA | ELIZONDO |
| Maialen BERTIZ ORBEGOZO | ELIZONDO |
| Naroa IRIARTE ELIZAINTZIN | ARIZKUN |
| Amaia ETXABE AIZPURUA | ERRATZU |
| **Entrenatzailea:** Amaia ASTIZ | ELIZONDO |

## BAZTAN BKT: NESKA INFANTILAK B

| | |
|---|---|
| Naiara ERASUN MUÑOZ | ELIZONDO |
| Nerea SANZ AZPIROZ | ZIGA |
| Olaia MEOKI MUÑOZ | ELIZONDO |
| Naia GARAIKOETXEA LOBEIRAS | BERROETA |
| Idoia MUNANGO MALES | ELIZONDO |
| Ane TRANTXE MORENO | ELIZONDO |
| Maite USTARROZ ALTZUARTE | ORONOZ |
| Patricia DEL CAMPO PELLICER | ELIZONDO |
| Kandela IBAIBARRIAGA AGRA | ELIZONDO |
| Haizea MARITORENA ERROZ | ANIZ |
| Irati IPARRAGIRRE MEOKI | ELIZONDO |
| Valeria ADIN URTASUN | ELIZONDO |
| Ainara DENDARIETA ELIZAINTZIN | IRURITA |
| Leire BALLARENA GOIENETXE | ELIZONDO |
| Nagore URRUTIA REY | IRURITA |
| Amaia OLAIZOLA GOÑI | ELIZONDO |
| **Ent.:** Enrique PETRIRENA BAQUERO | ELIZONDO |
| **Ofiziala:** Rafa MITXELENA | ELIZONDO |



LA BAZTANESA S.A.

Autobus Enpresa

Lineako autobus eta turismo bidaien zerbitzua

Santiago, 25 · ELIZONDO · 948 580 129

# ESKUBALOIA



## BAZTAN BKT: ALEBINAK A

| | | | |
|---|---|---|---|
| Uxue ZABALETA ZAMORA | Mugairi | Auza IPARRAGIRRE ITURZAETA | Elizondo |
| Jone ETXEBERRIA ZABALETA | Elizondo | Mikele JUBERA IDOATE | Lekaroz |
| Miren ARRAZTOA GARBALENA | Gartzain | Iraider ITURREGI ZELAIETA | Elizondo |
| Jon GONZALEZ GALARREGI | Elizondo | Maialen MIGELTORENA GASKUE | Berroeta |
| Izaro PAGARUORTUONDUA A. | Gartzain | Irati BIGURIA ETXABARRI | Elizondo |
| Lucia BALDANTA ARRUIZ | Elizondo | Eider ERASO ETXENIKE | Irurita |
| Marina MENDIBURU OHARRIZ | Gartzain | **Ent.:** Naroa BERHO | Oronoz |
| Naxara ALEMAN IRISARRI | Elizondo | Miren GONZALEZ | Elizondo |



## BAZTAN BKT: ALEBINAK B

| | | | |
|---|---|---|---|
| Elisabet BAYLON URTASUN | Irurita | Irune ITURRALDE GOÑI | Elbete |
| Araitz ZABALETA ZAZPE | Irurita | Lur OIARTZABAL AIZPURU | Irurita |
| Ane URREAGA ESKUDERO | Irurita | Natalia ROQUE AGUILERA | Elizondo |
| Meselech IRISARRI URRUTIA | Elbete | Nahia GALLEGO LEIZAGOIEN | Elizondo |
| Uxue BIKONDO ARRETXEA | Irurita | Ioana BEOLA VELICHKOVA | Almandoz |
| June URRUTIA ERIZE | Irurita | **Ent.:** Izaskun DANBORIENA | Azpilkueta |
| Elaia VAQUERO ALEMAN | Irurita | **Ent.:** Izaskun AIZPURU | Azpilkueta |

BAZTAN KIROL TALDEAK



## BAZTAN BKT: BENJAMINAK A

| | | | |
|---|---|---|---|
| Maddi LAZARO GARMENDIA | Elizondo | Ilazki IBARGARAI SANTESTEBAN | Erratzu |
| Nora GALLEGO IZETA | Irurita | Iraide OBREGOZO MARTIRENA | Elizondo |
| Naroa IPARRAGIRRE MEOKI | Elizondo | Jon IRIGOIEN INBULUZKETA | Elizondo |
| Ane MEZKIRITZ ORUBE | Arizkun | Aimar GALARREGI RIPA | Elizondo |
| Ainhoa MERZKIRITZ ORUBE | Arizkun | **Ent.:** Ane BERHO | Oronoz |
| Uxue GOÑI BIDEGAIN | Elizondo | **Ent.:** Maider ALTXU | Oronoz |



## BAZTAN BKT: BENJAMINAK B

| | | | |
|---|---|---|---|
| Nerea ELIZETXE SEGALES | Elizondo | Ana MUGIKA BERTIZ | Elizondo |
| Izaro IANTZI IRIGOIEN | Gartzain | Maite PRUAÑO GOÑI | Elizondo |
| Eider ZAMORA ETXABARRI | Mugairi | Uxue MINDEGIA ETXENIKE | Mugairi |
| Ane GARAIKOETXEA OPOKA | Mugairi | Ainara ZELAIETA ALEMAN | Elizondo |
| Olaia AVILA DURAN | Elizondo | **Ent.:** Haizea EUGI | Irurita |
| Marian GURDIAIN HERNANDEZ | Elizondo | **Ent.:** Nahia BAILON | Irurita |
| Naroa ZABALETA ZAMORA | Mugairi | **Ent.:** Leire ARRAZTOA | Irurita |



# Entrenatzaile eta jokalari berriak izan arren indartsu hasi da Erreka

## Aldiz, emakumeen talderik ez dute kantxaratu aurten eta pena dela aipatu digu Iban Mindegiak



Argazkia: Aitor AROTZENA

Errekako talde nagusiak txapeldunen fasean sartu nahi luke aurten ere eta ongi hasi da.

Aurten zazpi talderekin ari da lanean Erreka eskubaloian, iaz baino bi guttiago eta horien artean, emakume seniorren taldea. «Hori niretzat pena haundia da» aipatu digu Iban Mindegia *Gazbok*, zortzi urtez kategoria gaztegoetako taldeak gidatu ondotik, gizonezko seniorren ardura lehen aldiz hartu duen entrenatzaileak. Entrenatzailea ez ezik, taldean ere aldaketak izan direla aipatu digu Mindegiak, «jubenilen talderik ez baita, bortz jubenil ari dira gurekin eta handietan lehen urtea duten bertze bi jokalari, Iruñeko bertze atezain bat… Baina blokea egina dago eta eskubaloian memoriaz aritzen dira».

Denboraldi hasiera bikaina egin du Errekak eta «hagitz kontent» dagoela aipatu digu. «Aurredenboraldian beldurra nuen, fisikoki nola egonen ote ziren, baina ongi daude eta entrenamenduetan 14 bat lagun biltzen gara». Jokatzeko modua ere aldarazi du Iban Mindegiak: «Lehen joku geldoagoa zuten eta orain dinamikoagoa da, denbora guztian lasterka paratzen ditut… jendea badugu eta hori aprobetxatzen saiatzen gara, erritmoa emateko. Gazteak direnez, guttiago nekatzen dira». Bertzetik, esperientzia falta dela sumatu du entrenatzaileak, «partida bukaera estuetan urduritasunak agertzen dira, baina hori kudeatzen ikasiko dute partidekin».

Sailkapenari begira, txapeldunen fasean sartzeko itxaropentsu dago Mindegia, «hori da lehen helburua eta ongi hasi garenez, egingarria da. Lau onenen artean sartzeko moduko 6-7 talde daude gure multzoan, baina borroka horretan egon gaitezke. Gero lauko finalera sartzeko presiorik ez dugu, hori opari handia izanen litzateke».

### ERREKA: 2. MAILA NAZIONALA

| | |
|---|---|
| Adei IBARGARAI AGIRRE | NARBARTE |
| Alberto ETXAIDE RIPODAS | MUTILOABEITI |
| Ander BERASATEGI ELIZONDO | DONEZTEBE |
| Asier ARANGUREN OKIÑENA | BARAÑAIN |
| Asier AROZENA MARIEZKURRENA | DONEZTEBE |
| Ekaitz LAMEIRINHAS MUTUBERRIA | ELIZONDO |
| Beñat MARTIARENA ADURIZ | DONEZTEBE |
| Emilio ZABALA EZKURRA | DONEZTEBE |
| Goio MINDEGIA ELETA | DONEZTEBE |
| Javier APEZTEGIA ITURRIA | DONEZTEBE |
| Javier GAGO BALDA | DONEZTEBE |
| Kepa MIGUEL ETXEBESTE | DONEZTEBE |
| Mario LOPEZ PAGAZARTUNDUA | GARTZAIN |
| Matias URIOSTE PEREZ | DONEZTEBE |
| Mattin JAUNSARAS SANTXOTENA | DONEZTEBE |
| Mikel LANA ALBERRO | DONEZTEBE |
| Oier BERASATEGI ELIZONDO | DONEZTEBE |
| Otito ROQUE AGUILERA | ELIZONDO |
| Peio MITXEO TELLETXEA | GAZTELU |
| Ruben OSLE SANCHEZ | BEINTZA-LAB. |
| Urtzi JUANENA ETXEBERRIA | DONEZTEBE |
| Xabier IBARROLA GOÑI | DONEZTEBE |
| **Ent.:** Iban MINDEGIA ELIZAGA | DONEZTEBE |

**Ofizialak:** Jose Francisco REKARTE JUANIKORENA, Julen ETXEBESTE HILINGER eta Andoni ESPELOSIN GOIZUETA

• NURSTUDIOPILATES •
PILATES METODOA
K-STRETCH METODOA
GIMNASIA ABDOMINAL HIPOPRESIBOA
"Gaitz gehienak eguneroko ohitura desegokien ondorio dira"
**"Osasun fisikoa zoriontsu izateko lehen baldintza da".**



Rosa Seminario 7 • DONEZTEBE - NAFARROA
M. 627 039 233 • @. nurfuejo@gmail.com • www.nurstudiopilates.com

# ESKUBALOIA



ARGAZKIA: ERREKA KE

Mutiko kadeteen taldea ere ongi ari da.



ARGAZKIA: ERREKA KE

Neska kadeteen taldean bederatzi jokalari bertzerik ez daude.



ARGAZKIA: ERREKA KE

Neska infantilak.

## ERREKA: MUTIKO KADETEAK

| | |
|---|---|
| Andoni PRIETO ETXEGARAI | BERA |
| Andoni EUGI MENDIZABAL | IGANTZI |
| Asier ARREGI PEREZ | DONEZTEBE |
| Asier LANZA GARCIA | SUNBILLA |
| David MITXEO ZOZAIA | DONEZTEBE |
| Ekaitz SAN MARTIN MAYLIN | DONEZTEBE |
| Eñaut SETOAIN | DONEZTEBE |
| Erik GARCIA OTXANDORENA | DONEZTEBE |
| Iker LOIARTE OTXANDORENA | ZUBIETA |
| Ioritz MITXEO OSKOZ | DONEZTEBE |
| Jose Luis SALVADO JUSTINO | ELIZONDO |
| Joseba BENGOTXEA SAPUPPO | DONEZTEBE |
| Julen AVILA DURAN | ELIZONDO |
| Marko SAN MIGUEL GRANDE | DONEZTEBE |
| Martxel URRUTIA ESEBERRI | ELIZONDO |
| Mikel PRIETO ETXEGARAI | BERA |
| Nicolas GARCIA ARANZADI | ETXALAR |
| Oier URRUTIA BALLARENA | ERRATZU |
| Unai OSLE SANCHEZ | BEINTZA-LAB. |
| Unai TORRES ALEMAN | ORONOZ |
| Xabier MARCOS HUALDE | ELIZONDO |
| Xuban ILARREGI ARIZTEGI | DONEZTEBE |
| Zorion ZELAIETA ILARREGI | OIZ |
| **Entrenatzailea:** Matias URIOSTE PEREZ | DONEZTEBE |
| **Ofiziala:** Leire TELLETXEA ZELAIETA | DONEZTEBE |
| **Ofiziala:** Ignacio Antº MARCOS ZORROZA | ORONOZ |

## ERREKA: NESKA KADETEAK

| | |
|---|---|
| Ainhoa ARRIETA BERGARA | DONEZTEBE |
| Ane ETXARTE JUANENEA | DONEZTEBE |
| Elisa URROZ KOVALIK | DONEZTEBE |
| Garazi ETXALAR ZUGARRAMURDI | SUNBILLA |
| Inmaculada IBARROLA MARIEZKURRENA | DONEZTEBE |
| Itsaso OIARTZABAL ZOCO | DONEZTEBE |
| Janire IRIBARREN LIZARDI | DONEZTEBE |
| Lucia IRIGOIEN TELLETXEA | DONEZTEBE |
| Olatz SAN MIGUEL GRAGIRENA | DONEZTEBE |
| **Entrenatzailea:** Maider OMAR PORROY | DONEZTEBE |
| **Entrenatzailea:** Javier APEZTEGIA ITURRIA | DONEZTEBE |

## ERREKA: NESKA INFANTILAK

| | |
|---|---|
| Ainara OTXANDORENA PIKABEA | ELGORRIAGA |
| Andrea SAN MIGUEL GRANDE | DONEZTEBE |
| Ane MARTINEZ ITURRALDE | DONEZTEBE |
| Bidane LASA SAGASETA | NARBARTE |
| Helene REKARTE KORTA | SUNBILLA |
| Ilazki CRUZ OTXANDORENA | ELGORRIAGA |
| Irune URROZ GONZALEZ | URROZ |
| Maddi JUANENA ETXEBERRIA | DONEZTEBE |
| Maialen URROZ GONZALEZ | URROZ |
| Maitane SUBIZAR QUISPE | NARBARTE |
| Marina ZABALA SARASOLA | DONEZTEBE |
| Nahia GANBOA ANZIZAR | DONEZTEBE |
| Naroa HUARTE JUANOTENA | NARBARTE |
| Nere ARREGI ETXARTE | DONEZTEBE |
| Saioa IRIARTE IBARROLA | DONEZTEBE |
| Saioa SAN MIGUEL ZELAIETA | DONEZTEBE |
| Yaiza GONZALEZ GAMIO | DONEZTEBE |
| **Entrenatzailea:** Felipe GANBOA ZABALO | DONEZTEBE |
| **Ofiziala:** Edurne ANZIZAR IBARRA | DONEZTEBE |

# ESKUBALOIA







## ERREKA: ALEBINAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Aimar BERASATEGI ELIZONDO | Doneztebe | Nerea APEZETXEA GOÑI | Doneztebe |
| Alaine HUARTE JUANOTENA | Narbarte | Nerea SATRUSTEGI MIKELARENA | Doneztebe |
| Ane ETXALAR ZUGARRAMURDI | Sunbilla | Oihan ELORZA REKARTE | Donamaria |
| Carla IRIBARREN JUANENA | Doneztebe | Olaia HUARTE JUANOTENA | Narbarte |
| Hector HICIANO LUIS | Doneztebe | Olaia RUIZ JUANENA | Doneztebe |
| Hodei GASTESI ETXEBESTE | Sunbilla | Paula ZABALA SARASOLA | Doneztebe |
| Iban BAKEDANO JUANIKORENA | Doneztebe | Unax ZULAIKA IRIGOIEN | Doneztebe |
| Ilargi MARTINEZ LEITZA | Ituren | Uxue ILARREGI ARIZTEGI | Doneztebe |
| Izaro ARRETXEA MIKEO | Ituren | Meseret REINA GARROTE | Zubieta |
| Jone GANBOA ANZIZAR | Doneztebe | Nerea AGESTA MARTIKORENA | Doneztebe |
| Lara RIBEIRO CORDERO | Sunbilla | Zorione DIAZ MUNGIA | Ituren |
| Leire MARTINEZ AGINAGA | Doneztebe | **Ent.:** Ane LARRETXEA LUKANBIO | Doneztebe |
| Lorea AGESTA TELLETXEA | Doneztebe | **Ofiz.:** Melanie TELLETXEA RIVAS | Doneztebe |
| Magaly MARIÑELARENA INDA | Sunbilla | Joseba LEGARRA ERASUN | Doneztebe |
| Maialen ARRETXEA OTXANDORENA | Sunbilla | Naxara JAUNSARAS OTXANDORENA | Doneztebe |
| Mikel URROZ GONZALEZ | Urroz | | |

## ERREKA: BENJAMINAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Amaia MARTINEZ AGINAGA | Doneztebe | Izaro ZUNZARREN | Doneztebe |
| Amaia URROZ | Urroz | Joel MAYLIN | Donamaria |
| Asier AGESTA TELLETXEA | Doneztebe | Markel PIKABEA | Doneztebe |
| Eider BERISTAIN | Gaztelu | Mikel GOIENETXE | Doneztebe |
| Ekai ELORTZA | Donamaria | Nahia ZIGANDA | Doneztebe |
| Enea ERKIZIA AMOROS | Doneztebe | Saioa OTEIZA ELIZONDO | Oiz |
| Galia MOSALEN | Doneztebe | Unai IRIGOIEN SANZ | Doneztebe |
| Iker ANZIZAR IRURUETA | Doneztebe | Zuhaitz BARBARIN LEGAZKUE | Doneztebe |
| Iker LANZA | Sunbilla | **Ent.:** Itxaso ESTANGA OTXANDORENA | Doneztebe |
| Irune OIARTZABAL | Doneztebe | **Ent.:** Ainhoa LEIZA GARRIIDO | Doneztebe |

## ERREKA: AURREBENJAMINAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Aimar BERTIZ ETXEBERRIA | Elgorriaga | Mikel URREAGA ELIZONDO | Doneztebe |
| Ander RETEGI | Doneztebe | Mikel VILLAMEA SARALEGI | Doneztebe |
| Asier HUARTE SANZ | Doneztebe | Naroa MUTUBERRIA SALABERRI | Doneztebe |
| Beñat IRIBARREN | Doneztebe | Oñatz EZKURRA IRAZOKI | Doneztebe |
| Beñat TELLETXEA | Doneztebe | Unai OTEIZA ELIZONDO | Oiz |
| Enaitz GOÑI | Doneztebe | Xabi BAKEDANO JUANIKORENA | Doneztebe |
| Ibai ELIZONDO UTERGA | Doneztebe | Xabier OIARTZABAL | Doneztebe |
| Jokin MARIEZKURRENA | Elgorriaga | **Ent.:** Ane ETXARTE JUANENEA | Doneztebe |
| Juan ALEJANDRO LOBO | Doneztebe | Olatz SAN MIGUEL GRAGIRENA | Doneztebe |
| Martxel ETXEBESTE FUENTES | Zubieta | Ainhoa ARRIETA BERGARA | Doneztebe |
| Martxel URROZ | Urroz | Itxaso OIARTZABAL ZOCO | Doneztebe |

ARGAZKIAK: ERREKA KE
Errekako eskubaloi taldean ttiki-ttikitatik hasten dira neska-mutikoak. Emaitzei begiratzea baino gehiago, jolastuz ongi pasatzea dute lehen helburua.



## SASKIBALOIA

# Uztaipean sendo segitzen dute Beran

### 42 neska eta 13 mutiko ari dira Toki Ona Bortziriak taldearekin



Argazkiak: Aitor AROTZENA

Juniorrak dira aurten Toki Ona Bortziriak saskibaloi taldeko handienak. Behean, kadeteak.

Berako Toki Ona-Bortziriak taldeak 16 urte bete ditu eta saskibaloia lantzen segitzen du. Aurten bortz talde kantxaratu ditu denboraldi hasieratik, baina Imanol Etxeberriak aipatu digunez, «bertze bi talde baditugu entrenatzen ari direnak (30 neska-mutiko inguru) eta bigarren fasean talde berri bat sartzeko ahaleginetan ari gara».

Azken urtetan bezala guraso, jokalari ohi eta lagun talde bat ere elkartzen da entrenatzeko eta jokatzeko.

Gurasoen laguntza zein garrantzitsua den azpimarratu nahi dute: «Beraiek gabe ezinezkoa litzateke etxeko partiduak aurrera eramatea».



| TOKI ONA-BORTZIRIAK: JUNIOR | |
|---|---|
| Itxaso ERAUSKIN RUIZ | BERA |
| Neskur ETXENIKE IGANTZI | LESAKA |
| Saioa UGALDE ELTZAURDIA | BERA |
| Ane OSUA CABIDA | BERA |
| Arantxa SESE AGARA | BERA |
| Olaia OTXOTEKO TELLETXEA | BERA |
| Katti IRASTORZA URDANITZ | BERA |
| Maialen RUIZ ALTZUGUREN | BERA |
| Onintza ZAPIAIN ABUIN | BERA |
| Irati FAGOAGA EUGI | BERA |
| **Entrenatzaileak:** | |
| Imanol ETXEBERRIA GARCIA | LESAKA |
| Txuma ANDRES DE LA FUENTE | BERA |

| TOKI ONA-BORTZIRIAK: KADETE | |
|---|---|
| Leire RUIZ ALTZUGUREN | BERA |
| Eider MOLINERO BARRETO | BERA |
| Oihane ZELAIETA LAZKANO | BERA |
| Ekhiñe ZAPIAIN ARLEGI | BERA |
| Kattalin BERASAIN GOIA | BERA |
| Lorena PEREZ CUEVA | BERA |
| Miren Lizar ELEXPURU MITXELENA | BERA |
| Eneritz ZAPIAIN ABUIN | BERA |
| Eloisa RODRIGUES FERREIRA | ARANTZA |
| Julia ARTIEDA VILA | BERA |
| **Entrenatzaileak:** | |
| Egoitz EIZAGIRRE BURLADA | BERA |
| Hodei UNSION MENDIGUTXIA | BERA |
| Fernando ARTIEDA IRAZOKI | BERA |





## TOKI ONA-BORTZIRIAK: INFANTILAK

| | |
|---|---|
| Nahia ITURRIA GARCIA | BERA |
| Mendi ZUBIETA ITURRIA | BERA |
| Leire ARNAIZ PIZZIO | BERA |
| Irati ELIZONDO BENGOETXEA | BERA |
| Leire UGALDE GARCIA | BERA |
| Katixa SARALEGI ZUBIETA | BERA |
| Uxune OTXOTEKO TELLETXEA | BERA |
| Amaia LAGOS OIARTZABAL | BERA |
| Ainhoa ALTZUGARAI GARRO | BERA |
| Izaro ETXEPARE ELRIO | BERA |
| Sara TXOPERENA LACAR | LESAKA |
| **Entrenatzailea:** | |
| Jon IRAZOKI MARTIKORENA | BERA |

ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Ttiki-ttikitatik hasten dira Berako saskibaloi taldean trebatzen. Orrialde honetako argazkietan, infantil eta aurreinfantil mailako neskak eta minibasket mutikoen taldeak.



## TOKI ONA-BORTZIRIAK: AURREINFANTILAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ihintza UDAETA ZUBIETA | BERA | Iraia ZAPIAIN ARLEGI | BERA |
| Ihintza DAGUERRE DIEGUEZ | BERA | Maddi NAVARIDAS CUESTA | BERA |
| Uxia DAGUERRE DIEGUEZ | BERA | Ane MOLINERO BARRETO | BERA |
| Zaira RICO IGOA | BERA | Nahia PIKABEA ELIA | BERA |
| Ziortza GOIA MITXELENA | BERA | **Entrenatzailea:** | |
| Naroa OTAMENDI ABRIL | BERA | Esther MENTABERRI BERGARA | |



## TOKI ONA-BORTZIRIAK: MINIBASKET MUTIKOAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Joanes ARIZTIMUÑO MUTUBERRIA | BERA | Unai RUIZ GONZALEZ | BERA |
| David BERGMAN | ETXALAR | Aimar SAROBE SIMON | BERA |
| Aimar ETXEBERRIA CASTEIG | BERA | Urko RUIZ MARTIKORENA | BERA |
| Ekai ETXEBERRIA CASTEIG | BERA | Mihai CTITOR | BERA |
| Oihan GOIA SIMON | BERA | **Entrenatzaileak:** | |
| Oihan PIKABEA ELIA | BERA | Roger BERGMAN | ETXALAR |
| Joel PRENDES PIKABEA | BERA | Maite ELIA MITXELENA | BERA |
| Oier SAROBE ROMAN | BERA | Txuma ANDRES DE LA FUENTE | BERA |
| Martxel MATXIKOTE ZOKO | BERA | | |



# FUTBOLA

# Erregionaleko lehen mailan jokalari gutxi ditu aurten ere Aurrerak

## Leitzan «futbolerako grinarik ez dagoela» dio Arri entrenatzaileak



ARGAZKIAK: PABLO FEO
Erregionaleko lehen mailan talde gaztearekin lehiatzen ari da Leitzako Aurrera futbol taldea.

Leitzako Aurrera futbol talde nagusia Nafarroako Erregionaleko lehen mailan ari da bigarren urtez. Jose Luis Arrizurieta dute aurten ere entrenatzaile eta aipatu digunez, «taldea gogotsu dago, baina iazko arazo beretsua dugu: 18 fitxa besterik ez ditugu, iaz baino gutxiago eta denboraldia luzea izaten da». Beraz, jokalariak deialditik kanpo utzi beharrik ez du Arrik: «Jendea jokatu gabe uztea, hori ere ez da gauza ederra izaten, baina beste aldetik, konpetentziarik ez dagoenez, batzuk badakite entrenatzera joan gabe ere jokatuko dutela, eta azkenean exijentzia eta maila jaitsi egiten da eta hori nabaritzen da partiduetan». Jubenilen taldean ere 14 fitxa besterik ez dituztenez, ezin izaten du bertatik jokalariak hartu: «Bakarrik egun berean partidarik ez daukagunean hartzen ahal ditut pare bat jokalari, baina gehienetan egun berean jokatzen dugu».

Emaitza aldetik, liga hasieran ongi ibili baldin baziren ere, azken aldian ez dabiltza nahi bezala, «etxetik kanpo batez ere, eta irregulartasuna aipatuko nuke. Ea zuzentzen garen». Multzoko bost lehenak sailkatuko dira igoera fasean aritzeko eta horien artean sartu nahiko luke Aurrerako entrenatzaileak, «baina oso zail dago, lesioekin suertea izan behar dugu».



Beraien kategorian belar naturaleko zelai bakarra da Arkiskil eta negu partean entrenatzeko izaten dituzten arazoak ere gogoratu ditu Arrik: «Ezin dugu zelaian entrenatu, hondatu egiten delako, ormigoian egin behar dugu, bestelako baloiak erabiliz, oso txarra dagoenean kiroldegian egiten dugu eta hori ongi prestatzeko oztopo bat da».

| AURRERA FUTBOL TALDEA: ERREGIONALA | |
|---|---|
| Ioritz OIARTZABAL CEBALLOS | LEITZA |
| Mikel SAGASTIBELTZA EGUES | LEITZA |
| Iñigo ZABALETA HERNANDEZ | LEITZA |
| Mañel WOISCHWILL BIGERA | LEITZA |
| Joanes LASARTE ARRUZA | LEITZA |
| Iñigo ITURRARTE MIHURA | LEITZA |
| Jabier ARTOLA MAZO | LEITZA |
| Jon VAZQUEZ URANGA | LEITZA |
| Markel BARRIOLA HERNANDORENA | LEITZA |
| Asier GIL ZUBILLAGA | LEITZA |
| Imanol ARRATIBEL JIMENO | BERROBI |
| Jon PERURENA LABAIEN | LEITZA |
| Ander ESKUDERO ORBEGOZO | LEITZA |
| Martxel INTXAUSTI LASARTE | LEITZA |
| Joanes OSKOZ ANECHU | ARRARATS |
| Ander ALDUNTZIN IBAÑEZ | LEITZA |
| Oinatz MARIEZKURRENA BALDA | LEITZA |
| Manex MORENO HUARTE | LEITZA |
| **Ent.:** Jose Luis ARRIZURIETA BILDARRAZ | LEITZA |
| **Delegatua:** Joseba URRETA | LEITZA |



ARGAZKIA: PABLO FEO
Aurrerak jubenilen taldea ere zelairatu du aurten zelai handian.

| AURRERA FUTBOL TALDEA: JUBENILAK | |
|---|---|
| Asier BARRIOLA ZOZAIA | LEITZA |
| Oier GOIKOETXEA SAGASTIBELTZA | LEITZA |
| Egoitz SANCHEZ LIZEAGA | LEITZA |
| Asier CAMPOS SAGASTIBELTZA | LEITZA |
| Eneko FEO MIGUELA | LEITZA |
| Joseba AZKUE BARRIOLA | LEITZA |
| Eñaut ZUBIRI ARBURUA | LEITZA |
| Asier JUANENEA LABAIEN | LEITZA |
| Luken CASARES ARRETXE | LEITZA |
| Xabat ILLARREGI MARZOL | LEITZA |
| Aimar OTERMIN GURRUTXARRI | LEITZA |
| Anartz RAMALLO IPARRAGIRRE | LEITZA |
| Jon Mattin SUKUNTZA TELLETXEA | LEITZA |
| Aitor ETXARRI | LEITZA |
| **Entrenatzaileak:** | |
| Jon BARRIOLA | LEITZA |
| Tomas SAGASTIBELTZA AIERTZA | LEITZA |

# ARETO-FUTBOLA







## AURRERA AF: MUTIKO INFANTILAK

| | |
|---|---|
| Ekaitz MUTUBERRIA | LEITZA |
| Ander GARRO | LEITZA |
| Hegoi BARAIBAR | ARESO |
| Adei ZUBILLAGA | LEITZA |
| Egoitz BARAIBAR | LEITZA |
| Ibai SAGASTIBELTZA | LEITZA |
| Aitor ARRARAS | LEITZA |
| Ibai REMIREZ | LEITZA |
| Entrenatzaileak: | |
| Luken KASARES eta Mikel ZABALETA | LEITZA |

## AURRERA AF: MUTIKO ALEBINAK A

| | |
|---|---|
| Aitor ERBITI | LEITZA |
| Unax AGIRRE | LEITZA |
| Eki MATEORENA ZOZAIA | LEITZA |
| Imanol BIURRARENA | LEITZA |
| Hasier MONTERO | LEITZA |
| Razban LIBER | LEITZA |
| Jon Mikel AGIRRE | LEITZA |
| Ibai IRIARTE | LEITZA |
| Oihan MARITORENA | LEITZA |
| Xuban GOIKOETXEA | LEITZA |
| Manex ZABALETA | LEITZA |
| Entrenatzaileak: | |
| Amets CAMPOS eta Iñigo ZABALETA | LEITZA |

## AURRERA AF: MUTIKO ALEBINAK B

| | |
|---|---|
| Aitor LIZARTZA RODRIGUEZ | LEITZA |
| Hodei ANAUT OTXOTORENA | LEITZA |
| Ibai OTERMIN GURUTXARRI | LEITZA |
| Amets AMUNDARAIN GARRIDO | LEITZA |
| Ugaitz UGARTEMENDIA MENDIZABAL | LEITZA |
| Eneko BARRIOLA ZOZAIA | LEITZA |
| Eder SAGASTIBELZA URANGA | LEITZA |
| Kemen DERTEANO GARTZIARENA | LEITZA |
| Beñat BALEZTENA OTXOTORENA | LEITZA |
| Kenay CUMBA PICHAMBA | LEITZA |
| Hegoi LIZARRAGA VIGUERA | LEITZA |
| Entrenatzailea: Egoitz SANCHEZ | LEITZA |

ARGAZKIA: PABLO FEO

Areto-futbolean, infantilen mutikoen talde bat eta alebinetan bi ditu Aurrerak. Zoritxarrez, nesken talderik ez dute kantxaratu aurten.



FUTBOLA

# Baztan Futbol Taldea itzuli da hirugarren mailara

## Taldea ongi egokitu dela eta partida guztietan konpetitzen duela ikusten du Igotz Gardek



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

Hirugarren mailara itzuli da Baztan Futbol Taldea. «Gozatzen ari gara» dio entrenatzaileak.

Nafarroako Maila Autonomikotik berriz ere Hirugarren Mailara igo da Baztan futbol talde nagusia eta denboraldi hasieran ongi egokitu da kategoria haundi honetara, bigarren urtez taldea gidatzen duen Igotz Gardek aipatu digunez. «Lehenbiziko partida irabazi ondotik, batzuk galdu genituen eta kosta zitzaigun martxa hartzea, baina azken aldian etxeko partidak irabazi ditugu, kanpoan ere puntuak lortu ditugu eta martxa hartzen ari gara. Partidu guztietan konpetitzen ari da taldea eta hori bilatzen dugu».

Horretarako garrantzitsua da joan den urteko blokea mantentzen duela taldeak: «Jubeniletatik lau jokalari pasatu dira, baina lehendik daudenen babesean ongi sartu dira. Ez dira zerotik hasten, badakite nola jokatu behar duten. Taldea arras fuertea da bestuario barnean. Jokalari bakarrak utzi du». Hirugarren mailarako saltoari dagokionez, «konpetizioa iruditsukoa» dela uste du Gardek, «baina taldeek badute kalitate gehiago indibidualki, talde hobeak dira, denek badituzte aitzinean jokalari onak».

Bazkal aurrea girotzeko, triki-poteoa egin nahi dute baina ibilbidea ez dute oraindik zehaztu. 14:00etan bazkaria izango da Pake Toki elkartean (menua eta izena non eman datozen egunetan jakinaraziko dute).

Bazkalondoan, *Panpanoziri* aldizkariaren laugarren alea aurkeztuko dute eta garai bateko kontuak astintzen hasita, 17:30ean bideo emanaldi berezia ere izango da, herriko ospakizunak, xelebrekeriak… biltzen dituena.

Eguna bukatzeko, danbolinak jarriko dituzte dantzan, gaztain jatea egiteko.






ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

### Herriko ekoizle eta erosleak azoka berezian

Azaroaren 12an egin zuten Leitza eta Aresoko produktuen azoka. Bertan herriko ekoizleek beraien produktuak jarri zituzten salgai: Pelipen bordako postre goxoak, Alpaiteneko haragia eta fruitu lehorrak, Olatxetako barazkiak… Horiek ikusi eta erostera ere herritar ugari bertaratu zen. Horien artean, aipatu behar da zortea aldeko izan zuela Loidiko Enea Zubilagak, Alpaiteneko Jexux eta Lourdesek zozketatu zuten txuleta bikaina etxeratu zuen eta.



# BAZTAN

**OSPAKIZUNAK** ➜ AZAROAREN 18AN ALMANDOZEN

## Giro ezin hobea izan dute Basaburuaren II. Egunean

Musean Kiko Gartxitorena eta Karlos Garaikoetxea eta pilotan Gabon Gamio eta Iñaki Iantzi izan dira garaile



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA
Basaburuaren Eguneko bazkarian parte hartu zutenetako batzuk, giro ederrean.

**TTIPI-TTAPA**

Basaburuaren Egunaren bigarren edizioa ezin hobeki atera zen azaroaren 18an Almandozen. Parte-hartze handia izan zen ekitaldi guztietan eta hemendik bi urtera III. Basaburuaren Eguna antolatzeko lekukoa Zigak hartu du.

Larunbat goizean goiz hogei lagun inguru mendi itzulia egiterat joan ziren. 11etan haurrak Superlagunaren ipuin ederrekin gozatu zuten bitartean, handixeagoak musean aritu ziren, guztira hamabi bikote. Museko txapeldunak Berroetako Kiko Gartxitorena eta Karlos Garaikoetxea izan ziren.

Eguerdian pilota txapelketako finala jokatu zutem: honetakoan, Anizko Gabon Gamio eta Iñaki Iantzi izan ziren garaile.

Bazkarian 180 lagun bildu ginen giro ederrean, eta ondotik Hauspolariek taldearekin kantaldia eta dantzaldia izan ziren.

Hemendik bi urtera Zigan ospatuko da III. Basaburuaren eguna.

**ABENDUAREN 10EAN ARIZKUNENEAN**

### ‘Margotu berria’ diska aurkeztuko du Beira taldeak

**TTIPI-TTAPA**

Jon Martin bertsolariak eta Igor Arruabarrena, Urtzi Olaziregi, Garikoitz Amundarain eta Mikel Arruabarrena musikariek osatzen duten Beira taldeak *Margotu berria* diska aurkezteko kontzertua eskainiko du abenduaren 10ean, igande arratsaldeko 7etan Arizkunenean. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako emanaldirako sarrera doan izanen da lekuak bete arte.

**FLASH**

### Zerri-mondonga ikastaroa

Baztango Agroekologia eskola herritarraren eskutik, zerri mondonga ikastaroa antolatu dute Otsondo barride elkarteak eta Hazitik Hoziek abenduaren 2an, larunbatean 09:00etan hasita Amaiurko elkartean. Izen-ematea *hazitikhozie@gmail.com* helbidean. Ikastaro honekin 2017ko agroekologia eskola herritarren egitaraua akituko dute eta ilbeltzean aurkeztuko dute hurrengoa.

### Boltxebikeen iraultzaren mendeurrena

Boltxebikeen Errusiako Iraultzak 100 urte bete dituenean *Boltxebikeen iraultza: 100 urte eta gero zer?* solasaldia eskainiko du Eneko Compains EHUko irakasleak abenduaren 1ean, ortziralean 19:30ean Elizondoko Gaztetxean.

### Nafarroaren Eguneko Kontzertua

Nafarroaren Eguneko kontzertua eskainiko du abenduaren 3an, igandean 13:00etan Elizondoko Musika Bandak Arizkunenean.









ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Almandozko abesbatza San Fermin kapera zoragarriaren aitzinean.

**KULTURA** ➜ AZAROAREN 11N, EUSKAL TELEBISTAK GRABATU ZUEN

# Almandozko abesbatza Iruñean euskaraz kantari

Lehen aldiz meza euskaraz eman dute San Lorenzo elizan

**TTIPI-TTAPA**

Duela 300 urte egin zuten Iruñean San Lorenzo eliza. San Fermin kapera zoragarria dute bertan eta azaroaren 11n, lehen aldiz meza euskaraz ospatu zuten, Euskal Telebista bertan zela. Mikel Garziandia Aralarko kapelaua, Irigarai jesuita eta Javier Leoz apezak eskaini zuten meza. Almandozko abesbatzak ere parte hartu zuen, elizkizuna aberastuz. Ramon Apezetxeak aipatu digunez, «XVII. mendean %90 euskaraz mintzatzen omen ziren Iruñean eta elizkizunak euskaraz egiten ziren».




UTZITAKO ARGAZKIA

## Saharaztanek zozketatutako bizikleta

Elizondoko ferietan Saharaztango tonbolak zozketaturiko bizikleta, Berako Katea bike bizikleta-dendak oparitua, Elizondoko Saioa Jaurenari egokitu zaio. Zorionak Saioa! Bide batez, antolatzaileek eskerrik beroenak eman nahi dizkiete parte-hartzaile guztiei.

## *Ba al zenekien* ?

**Abenduaren 2an eta 9an Baztango artisauen bertako produktuen azoka eginen dutela 10:00etatik 14:00etara Elizondoko plazan.**



# BAZTAN

**ABELTZAINTZA** ➜ AZAROAREN 17AN SEGOVIAN

## Inguruko zerri-hazleak sarituak Porc D'Or sariketan

Iruritako Miguel Angel Maritorenaren haztegiak urrezko saria lortu du

**TTIPI-TTAPA**

Estatuko zerri haztegirik onenak saritzen dituen Porc D'Or sariketaren 24. edizioan, zenbait sari lortu dituzte aurten ere Baztango eta Zugarramurdiko abeltzainek. Sari handiena Iruritako Miguel Angel Maritorena Argainek eskuratu du, urrezko saria lortu baitu 10 eta 200 zerrama bitarteko esplotazioen kategorian, umatze-tasaren irizpidearen arabera.

Batez ere produktibitatearen arloa saritzen duen lehiaketan, urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak bana-tzen dituzte, kategoriaren arabera banatuta.

Berroetako SC Maritorena-Etxenike haztegiak zilarrezko saria jaso zuen produktibitate kopuruaren arloan eta zerrama bakoitzarengatik errapetik kendutako zerrikume kopuruaren arabera, Arizkungo SC Irigoien-Rekarte haztegiak ere zilarrezkoa lortu zuen, eta Zugarramurdiko Francisco Mihura Arraztoak brontzezkoa.

### Liburu aurkezpenak

Tomas Belzunegi Arizmendik (Elizondo, 1950) *El otro lado de la enfermedad* liburua aurkeztuko du abenduaren 15ean, ortziralean 19:00etan Arizkunenean.

Bertze aldetik, Jauregiartek argitaratutako *Baztan-Bidasoa* argazki liburua herriz herri aurkeztuko dute, eskualde osoan.

Abenduaren 22an, 19:00etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean aurkeztuko dute, baina aitzinetik Doneztebe (hilak 7, 19:00etan Herriko Ostatuan), Igantzin (hilak 9 , 11:00etan Irrisarri Landen), Beran (hilak 15, 19:00etan Beralandetan), Irunen (hilak 20 19:00etan, liburutegian) eta Lesakan (hilak 21, 19:00etan udaletxeko pleno-aretoan) eginen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jauregiarteko Pello Iriarte koordinatzaiea eta liburuan parte hartu duten argazkilarietako batzuk.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Xaulik zozketatutako margolana Itziar Arozenarendako

Adimen desgaitasuna dutenen aisialdirako Xauli klubak Koldo Sebastianen margolan bat zozketatu du berriki. Aipatzekoa da, Xaulin aritzen diren arduradunek boluntario bezala egiten dutela lan, inongo diru saririk hartu gabe. Baina hortik aparte, urtero 5.000 euro inguruko aurrekontua izaten du jarduerak egin ahal izateko eta diru hori lortzeko hainbat kanpaina paratzen ditu martxan. Kanpaina horietako bat izan da Koldo Sebastinanen margolanaren zozketa. Joan den urriaren 31n egin zuten zozketa eta Itziar Arozenak erositako 0402 zenbakia izan zen saritua. Azaroaren 14an jaso zuen margolana eta ordukoa da argazkia. Bide batez, Xaulitik eskerrak eman nahi izan dizkiote Koldo Sebastiani bere margolanagatik.





GIZARTEA ➜ AZAROAREN 1ETIK AITZINERA

# Dantxarineko aduana zaharra berriz zabalik

Bentetan lan egiten dutenek eta bisitariek sarbidea errazagoa dute

**Iñigo IMAZ**

Urdazubi eta Ainhoa arteko aduana zaharra zabalik da azaroaren 1etik aitzinera, urte luzez itxirik izan ondoren. Aduana zaharra gehien erabiltzen dutenak Xaretako biztanleak dira, Panta Benta ondoko pasabide berria erosoagoa baita bisitarientzako. Izan ere, aduana zaharra ertsita egon delarik, Ainhoako herrigunetik pasatzen den trafikoa gutxitu dela ikusi da. Azken aldian, trafiko arazoengatik, ainhoatarrak protestatzen ari dira.

Pariseko atentatuen ondorioz, Frantziak muga kontrolak ezarri zituen. Dantxarineko aduana zaharra irekita utzi zuten lehenik, eta Benta Panta ondotik pasatzen den karretera berria moztu zuten gero. Horrek aduana zaharrean izugarrizko ilarak sortu zituen. Frantziak, egun batzuen buruan, aduana zaharra itxi eta pasabide berria irekitzea erabaki zuen. Ondorioz, frantziarren erabakiak Lapitxuriko Bentari kalte egiten ziola salatu zuen Santiago Villares alkateak, Ainhoako udalari nahiz Gendarmeriari aduana zaharra irekitzeko eskaria luzatuz.

Urdazubik 20tik gora establezimendu ditu eta 500 pertsona inguruk egiten dute lan.



ARGAZKIA: I. IMAZ
Berriz ere autoak pasa daitezke Dantxarineko aduana zaharretik.

## Leorlasko eskolako haritza

Badira zenbait hilabete Leorlasko eskolako patioan dagoen haritzak kezka sortzen duela. Zuhaitza ederra da, baina barnekaldetik zulatuta eta ustelduta dagoela salatzen dute irakasle eta gurasoek. Kezkak, alta, haserreari eman dio bide, erlauntz bat agertu baita zuhaitzean.

Apirilean, eskolako zuzendariak arbola zaharraren egoeraren inguruan kezkak luzatu zizkion alkateari. Maiatzean, herriko langileek erlezainari deitu zioten, erleak erretiratzeko. Baina erlauntzaren altuera eta zuhaitzaren egoera ikusita ezin izan zuen lana bete. Egoera horretan, urriko udal batzarrean, oposizioko Urdazubi Elgarrekin taldeak gurasoen eskariaren berri izanik, soluzio bat bilatzeko eskatu zion alkateari. Horrek, bere harridura azaldu zuen, bere hitzetan «ez baitzion inork arbolari buruz deus galdetu, eta gainera Eskolako Kontseiluan Udalaren ordezkari den Iñaki Ariztia zinegotziak ez omen zion horren berririk eman». Berriro ere, herritar batek arazoren badu Udalera jo beharrean oposizioko zinegotziei zuzentzea harritzekoa zela gaineratu zuen. Urdazubi Elgarrekin taldeak arbolaren osasuna aztertuko duen tekniko bat kontratatzea proposatu zuen, eta beharrezkoa bada, zuhaitza moztuko zuela, eskolara hurbiltzen diren herritarren segurtasuna bermatzeko.

Herriko Etxeak urdazubiarren buzoietan banatzen duen batzarren laburpenak irakurtzearekin, eskolako zenbait guraso haserre agertu dira eta polemika sortu da, alkateak afera horren berri ez zuela adierazi zuelako.

## Erasoak

Azaroaren 11n eta 12an zenbait tokitan jasandako baldarkeriazko erasoek herritarrak kezkati eta haserre utzi dituzte. Salbatore plazako nahiz frontoiko parkinetan utzitako autoek gurpil guztiak airea kenduta, karrozeria basakeriz marratua eta, kasu bakan batzutan, atzerako ispilua xehatua zituztela ikusi zuten. Kezka sortu da, herrian ez baitira ohikoak horrelako ekintzak eta errepikatu ahalko diren beldur dira herritarrak.



ARGAZKIA: I. IMAZ
Hizpide eman duen Leorlasko eskolako haritza.

WORLD CHEESE AWARDS SARIKETAN

## Etxelekuko gasna saritua

**I. IMAZ**

Londresen ospatu den nazioarteko *World Cheese Awards* sariketan lau domina irabazi dituzte Etxelekuan ekoizturiko gasnek: urrezko bi eta zilarrezko zein brontzezko bana. Talde bikaina osatzen dute Manuel, Maribel, Xabier, Francisco, Ana Mari eta beren 500 ardiek. Txapelketan Idiazabalgo gasna ordezkatzen duten 31 gasnategien artean 9 urrezko domina bildu dituzte. Hortaz, Urdazubi mapan paratu dute Bengotxea-Lastiritarrek.

## ZUGARRAMURDI

**GIZARTEA** ➜ AZAROAREN 19AN

# Proiektuaren kontra Larunera igo dira

Herritik ere mendizale batzuk joan dira

**Josebiñe eta Koro**

Larungo kaskoan pasarelak, gradak, parkeak, eskalatzeko paretak… egin nahi dituzte. Proiektu horren kontra dagoen elkarteak, Larunen ibilaldi-kontzentrazio bat deitu zuen azaroaren 19an, jendeak, tokian berean, egin nahi diren aldaketak ikus zitzan. Zugarramurditik ere, talde polit bat animatu zen, eta proiektuaren xehetasunen berri izateko aukera izan zuten.



ARGAZKIA: JOSEBINE ETA KORO

Larungo kaskoan ateratako argazki honetan Maider, Julene, eta Jaione falta dira.

### Teletxeako teilatua berritua

Herri aunitzetan bezala, gurean ere, hutsik gelditzen ari diren etxeek zer pentsa ematen dute. Gure kasuan gainera, beheitiko karrikan arazo hau haundiagoa da oraino, dozena erdi bat etxe hutsik baitaude.

Horrengatik preziski, berri ona da Teletxea konpondu behar dutela ikustea, horrek nahiz eta hutsik egon, etxea zaintzen duen norbaite badagoela erran nahi baitu (bertze etxe batzuekin gertatzen ez den bezala).



ARGAZKIA: JOSEBINE ETA KORO

Teilatu berria du Teletxeak.



**KULTURA ➜** MIXEL MENDIBURUK

# Herriko etxaldeen bilakaeraz mintzaldia eman du





ARGAZKIAK: MIXEL MENDIBURU ETA UTZITAKOA
Goitian Ibarrun aldea eta beheitian, 1960. argazkian Senpereko herrigunea.

Senperek geroz eta etxalde gehiago galtzen duela urte guztiz erakutsi dute

**Pierre BASTRES**

1950 etik 2010 erat etxaldeen ehunetarik 68 galdu du Senpereko laborantzak: 256 zirelarik orain 80 dira, edo oraino guttiago Mixelen arabera: «Orotarat 80 laborantzan ari diren etxaldeak badirelarik, ene ustez, laborantzarik bakarrik bizi direnak 30 dira. Gaineratekoek bertze lana badute ondoan. Haatik, erabilitako eremua ainitz handitu da orotarat 70 eko luberritzeeri esker: 1.660 hektarea ziren 1963an eta 2.194 hektarea 2016an. Halaber, etxalde baten banaz bertzeko eremuak goiti egin du: 6,5 hektaretarik 27 hektaretarat. Baina kasu horrek bertze egoera latza itzaltzen du: 2000tik 2010era bitartean 17 hektareak galtzen ziren urte oro, eta hori laster-lasterra ari da goiti: 2010-2016 artean 42 hektareak galtzen ditu laborantzak!».

Bertze zenbaki izugarria ematen du Mixel - ek: «2000-2016 arte, laborarien erdia suntsitu da, galtzeko lasterra ez da sekula izan hain haundia». Egoera behatzaileen ezagutzera emanta, zergatiak eta nondik -norakoak ere argitu ditu. «Hemen gaindi, lurra bertze industriarako hazkurri ona bilakatu da, eraikintzarentzat hain zuzen. Baten batek uste lezake laborantzarako eremua aski handia dela, baina eremu horri ezin-eraikitako eta uholdepeko eremuak kenduta, 1400 hektarearat jausten da. Hektarea horiek behar dira zaindu, zeren eta bilakatuko litaizke etxe berrien gai. Etxalde gehienak familiaren barnean egon badira ere (72%) edo bertakoek erosiak (10%), lurra ari da joaten».

1995az geroztik, Senpereko biztanleak bietan gehiago dira, 7.000 rat heldu arte. Bertze problemak dakartza egoera horrek, «errate baterako euskal kulturak sufritzen du asko, eta hartzen luke arta gehiago uholde izugarritik begiratzeko».












# SARA

**GIZARTEA** ➜ URRITASUNA DUTENEI LAGUNTZEKO

## Telethonaren aldeko hainbat ekitaldi eginen dituzte abenduaren 9an

Goizez eta arratsaldez izanen da parte hartzeko aukera

**Joana GERENDIAIN**

Urtero bezala, ekitaldi frango antolatuko dira herrian Telethonarentzat dirua biltzeko. Abenduaren 9an, larunbatarekin, 10:30ean pastiza salmenta eginen dute plazan. 14:00etan hitzordua San Inazioko lepoan emana da trenez Larunera igotzeko. Jautsi, berriz, oinez edo trenez egiten ahalko da. Hamar euro ordaindu beharko dira parte-hartzearen truke.

Eguna bukatzeko, krakada antolatua dute Pikassarian eta honetan, bortz euroko parte-hartzea galdeginen dute. Bilduko den diru guztia Telethonari emana izanen da.




ARGAZKIA: LARRUN EZ HUNKI

**Larungo proiektuaren kontrako protesta**

Joan den azaroaren 19an, 400 bat lagun elkartu ziren Larun puntan, hor egin nahi duten berrantolatze proiektuaren kontra. Elkarretaratze horretan, hainbat elkartetako bozeramaileak mintzatu ziren proiektuaren ezeztatzea galdeginez: Ellande Alfaro (Larrun Ez Hunki), Philippe Lacarra (Ideki) eta Rafael Valdivielso (Cade Montagne). Proiektuaren lerro handiak laburbiltzeko, helburua bisitarien harrera baldintzak hobetzea da eta bide beretik, bisitarien kopurua emendatzea, hori dena 36 milioiko kostuarekin.

### Ongi izatearen eguna

Abenduaren 10ean, igandearekin, 09:30etik 19:00etara, ongi izatearen eguna antolatu dute Lur Berri gelan. Egun horretan, Sarako hamabortz terapeuta eta ofizioko sendagile ezagutzeko aukera izanen da, eta bide beretik, beraien lana eta osasunaren gainean izaten ahal dituzten onurak.

Hona hemen tailer eta konferentzien egitaraua: 10:00etan Hatha Yoga (Sarah), 11:00etan sofrologia (Maialen), eguerdian ChiGong (Gustavo), 14:00etan oinerreflexologia (Nicolas), 15:00etan Do In automasaia (Laurence), 15:30ean yoga haurrentzat (Laurence) eta 16:00etan Hatha Yoga (Bernadette). Egunean zehar bertze tailer batzuk ere izanen dira: masaje lasaigarriak, energetikoak eta bertze gauza anitz. Denei irekia eta urririk izanen da, eta jateko manera ere ukanen du joaten denak.

### Kirol emaitzak

Eskubaloian, azaroaren 11n, hamaika urtez azpikoek 27-15 galdu zuten; hemezortzi urtez azpikoek ere 19-15 galdu zuten, senior neskek 27-17 egin zuten; hamabortz urtez azpikoek 24-23 irabazi zuten eta mutikoek hogeinako berdinketa lortu zuten. Azaroaren 19an, hemezortzi urtez azpikoek 27-15 irabazi zuten eta neskek 38-11.

Errugbian, garaipenez garaipen doazi basurdeak: azaroaren 12an, 35-6 eta 19an 20-13 egin zuten.









# EZKONTZAK

**Migel Maria Iribarren Irisarri** eta **Lorena Gartziarena Babaze**, Doneztebe eta Legasakoa, irailaren 30ean.
**Jesus Minguito Melgosa** eta **Cristina Juliani De la Fuente**, Iruñakoak, Lesakan, urriaren 14an.
**Xabier Salaberri Elizetxe** eta **Oihane Alonso Amatriain**, Doneztebe eta Burlatakoa, azaroaren 11n.
**Francisco Javier Gimenez Leon** eta **Elixabete Gracenea Irigoyen**, Beriain eta Narbartekoa, azaroaren 17an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

# SORTZEAK

**Argia De rueda Alberdi**, Arantzakoa, azaroaren 4an.
**Maddi Samso Lujanbio**, Goizuetakoa, azaroaren 5ean.
**Eloi Arozarena Arrieta**, Urdazubikoa, azaroaren 5ean
**Unax Zelaieta Urriza**, Lesakakoa, azaroaren 6an.
**Oihan Barandarain Mitxaus**, Aresokoa, azaroaren 20an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
Urte osoan 24 orduko zerbitzua
Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere
T. 948 05 90 90

# HERIOTZAK

**Jose Miguel Lekuberria Ariztegi**, Lesakakoa, azaroaren 9an, 55 urte.
**Juana Etxebeste Etxeberguren**, Berakoa, azaroaren 12an, 85 urte.
**Jose Martin Apeztegia Garbizu**, Berakoa, azaroaren 12an, 85 urte.
**Felisa Irigoien Askobereta**, Anizkoa, azaroaren 13an, 91 urte.
**Jose Ramon Huizi Larrea**, Goizuetakoa, azaroaren 11n, 59 urte.
**Aniceto Navarro Lujanbio**, Goizuetakoa, azaroaren 13an, 82 urte.






*Udazkenak arboletako hostoak*
*eramiko ttik*
*biñon hire amets eta ilusioak*
*geldituko ttuk betiko*

**Xabi TELLETXEA ETXEBERRIA**
**Igantzi, 2010eko azaroaren 28an**
**VII. URTEURRENA**

HERRI KIROLA ➜ GIZONEZKOAK 600 KILOKOAN ETA TALDE MISTOAK 550 KILOKOAN

# Beti Gaztek etxean jantzi ditu Nafarroako sokatira txapelketako azken bi txapelak

Azaroaren 18an jokatu zen laugarren eta azken jardunaldia

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Nafarroako Goma Gaineko Sokatira txapelketako azken bi txapelak banatu ziren azaroaren 18an Lesakan. Gizonezkoen 600 kiloko txapelketan eta 550 kiloko txapelketa mistoaren bigarren jardunaldia jokatu zen eta Lakuntzako lehen saioan bezala, Beti Gazteko taldeek tiraldi guztiak irabazi zituzten.

Gizonezkoetan, Berriozar eta Antsoain sailkatu ziren lesakarren gibeletik. Beti Gazteko talde txapeldunean Karmelo Mitxelena, Beñat Ordoki, Mikel Apeztegia, Beñardo lantzi, Unai Gurrutxaga, Agoitz Altzugarai, Iñigo Altzugarai eta Eneko Saldias aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena erakusle zutela.

Txapelketa mistoan, Beti Gazteren gibeletik, Berriozar Bk eta Berriozar Ak osatu zuten podiuma.

Talde mistoan, berriz, Joxe Angel Mitxelena, Aitziber Goienetxe, Kristine Txoperena, Mikel Apeztegia, Oihana Mindegia, Alejo Sarobe, Virginia Goienetxe eta Gerardo Telletxea aritu ziren Beti Gazterekin, Karmele Pikabea erakusle zutela.

Honela, jokoan paratu diren lau txapeletatik hiru jantzi ditu Beti Gaztek, gizonezkoen 640 eta 600 kilokoak eta mistoa. Emakumezkoetan, 6x6 txapelketan, berriz, Txantrea izan zen txapeldun, Berriozar txapeldun orde eta Beti Gazte hirugarren.

Nafarroakoa bukatuta, Euskadiko launakako txapelketan hasi dira Beti Gazteko gizonez - koak 300 kiloko kategorian eta emakumeak 260 kiloko kategorian. Berriozarren jokatutako lehen jardunaldiaren ondotik, abenduaren 3an Ibarran eta 17an Kortezubin dituzte hurrengo tiraldiak.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Beti Gazteko mutilak txapeldun izan dira 640 kiloko kategorian. Neskak hirugarren.

HERRI KIROLA ➜ NAFARROAKO AIZKORA TXAPELKETA

# Iker Vicentek txapela lortu du hirugarrenez

Doneztebeko ferietan jokatutako finalean Jon Rekondo leitzarra bigarren izan zen eta Mieltxo Mindegia zubietarra hirugarren

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Nafarroako maila nagusiko aizkora txapelketako finala jokatu zen azaroaren 17an, jendez gainezka zegoen Doneztebeko Ezkurra frontoian. Ez zen ezusterik izan eta Otsagiko Iker Vicentek hirugarren aldiz jantzi zuen txapela.

Iker Vicentek 32 minutu eta 37 segundo behar izan zituen lau kana-erdiko, 60 ontzako bertze lau eta bi oinbiko mozteko. Hasieratik bukaerara jaun eta jabe izan zen eta bi minutu eta erdi baino gehiago atera zion txapeldunorde izan zen Jon Rekondo leitzarrari (35:15). Mieltxo Mindegia zubietarra hirugarren izan zen (36:48). Laugarren postua Ruben Saralegi leitzarrak eskuratu zuen (38:44) eta bosgarren postua, lehen finalean, Zigako Joxean Etxeberriak lortu zuen (39:41).




ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Iker Vicente, hirugarrenez txapelduna, eta Donezteben aritu ziren bertze lau finalistak.

| SAILKAPENA | | |
|---|---|---|
| 1 | **Iker Vicente** | 32:37 |
| 2 | Jon Rekondo | 35:15 |
| 3 | M. Mindegia | 36:48 |
| 4 | R. Saralegi | 38:44 |
| 5 | J. Etxeberria | 39:41 |

**PILOTA** ➜ ABENDUAREN 1EAN NAFARROAKO GOBERNUAREN ESKUTIK

# Kirol merituari emandako Urrezko Domina jasoko du Abel Barriolak

## Patxi Ordokik Zilarrezkoa jasoko du

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari bi Urrezko Domina emanen ditu aurten abenduaren 1ean, Nafarroaren Egunaren harira. Hain zuzen, Abel Barriola eta Juan Martinez de Irujo pilotari ohiek jasoko dute. Bertze 24 Zilarrezko Domina ere emanen ditu. Horien artean, Patxi Ordokik jasoko du bat, 30 urtez pilotaren alde egindako lanarengatik.

Zehazki, Abel Barriola leitzarra saritzerakoan, pilota profesionalean 18 urtez aritu dela goraipatzen da eta tarte horretan hiru txapelak jantzi zituela: buruz burukoa, binakakoa eta lau eta erdiaren barrenekoa. «Profesional izan zenean erreferentziako atzelaria izan zen eta pilotazaleen mundu guztiarekin lotura handia izan» zuela ere azpimarratzen du Gobernuak.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Abel Barriolak eta Patxi Ordokik Gobernuaren dominak jasoko dituzte

**ZILARREZKOAK**

Bertze 24 Zilarrezko Domina ere banatuko ditu Gobernuak, zuzendaritza arloan edo arlo teknikoan 25 urte baino gehiago eman dutenei. Horien artean dago Patxi Ordoki Larretxea. Sortzez aranztarra, 30 urte baino gehiago eman ditu pilota sustatzen Txaruta edo Erreka bezalako klubetan, baita Nafarroako Pilota Federazioan ere.

**MOTORRA** ➜ AZAROAREN 11N

# Beola eta Iratzoki nagusi Malerrekako I. Rallysprintean

## Donamariako Javier Mariñelarena omendu zuten antolatzaileek

**TTIPI-TTAPA**

Azaroaren 11n jokatu zen Malerrekako I. Rallysprinta. 37 ibilgailuk hartu zuten parte eta horietatik 24k lortu zuten proba akitzea. Joseba Beola etxalartarra eta Joxelu Iratzoki igantziarra (Mitsubishi EVO X) izan ziren irabazleak.

Goiz eta arratsaldez Doneztebeko karriketan ikusi ahal izan ziren autoak. Ibilbidea, berriz, Labaien eta Orokieta artean egin behar izan zuten, joan-etorria bi aldiz. Lau txanda eta 62,8 kilometro osatu behar zituzten denera.




UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Beola eta Joxelu Iratzoki, podiumaren goitiko koxkan.

Joseba Beola eta Joxelu Iratzokik (Mitsubishi EVO X) irabazi zuten; bigarren postua Joseba Lasa eta Maitane Martiarenak (BMW M3) eskuratu zuten eta hirugarren postua Asier Jaunsaras eta Ander Marizkurrenak (Peugeot 306).

Sari banaketaren ondotik omenaldia eskaini zioten antolatzaileek Donamariko Javier Mariñelarenari, *Mariñe*ri, Nafarroako Automobilismo Federazioan egindako lan guztia eskertuz, baita gazteei Malerrekako Rallysprinta antolatzen laguntzeagatik. Hain zuzen, 0 ibilgailuarekin ibili zen gidari, Jorge Mariñelarena, iloba, kopiloto zuela.

# azaroak 30 - abenduak 14

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.eus** edo **948 63 54 58**

## Ospakizunak




SARA | 2017.12.09

### Urritasuna dutenei laguntzeko Telethon ekimena abenduaren 9an

10:30ean plazan pastizak salduko dituzte eta 14:00etan San Inazio lepoan egin dute hitzordua, Larunera trenez igotzeko. 16:30ean krakada eginen dute Pikassaria jatetxean.

## Ospakizunak



ARESO | 2017.12.03

### Egun osoko pesta antolatu dute Areson Euskararen Egunerako

Triki-poteoa bazkal aurretik; eguerdian bazkaria; gero, Panpanoziri aldizkariaren ale berriaren aurkezpena; bideo emanaldi berezia eta eguna borobiltzeko, gaztain jatea antolatu dituzte Areson.

## Ikastaroak



AMAIUR | 2017.12.02

### Zerri mondonga ikastaroa Baztango agroekologia eskola herritarraren baitan

Amaiurko Otsondo barride elkarteak eta Hazitik Hoziek antolatu dute eta Amaiurko eskolan izanen da, 09:00etan. Harat hurbiltzen direnek, bertzeak bertze, txistorra egiten ikasiko dute.

## Erakusketak

IGANTZI

**Saskigintzaren inguruan**

**Abenduaren 8an** arratsaldez, Baratzondon.

**'Artea bizitzeko eta amets egiteko' margo eta eskulturak**

**Abenduaren 10era arte** Irisarriko Jauregian.

ELIZONDO

**Pedro Arizkurenen marrazketa eta margo erakusketa**

**Abenduaren 1etik 22ra** Arizkunenean.

## Solasaldiak

GOIZUETA

**'Errefuxiatuak eta emakume errefuxiatuen egoera Grezian'**

**Abenduaren 2an** Luzia Etxeberria, Nafarroako Brigada taldekoa, 11:00etan Ganbaran.

**'Harria, maitasun istorioa'**

**Abenduaren 3an** Iñaki Perurena 18:00etan eskolan.

ELIZONDO

**'Boltxebikeen iraultza: 100 urte eta gero zer?'**

**Abenduaren 1ean** Eneko Compains EHUko irakaslearekin, 19:30ean, gaztetxean.

DONEZTEBE

**Luis Garderen liburuaz**

**Abenduaren 1ean** 19:30ean, Liburutegian.

**'Baztan-Bidasoa' liburuaz**

**Abenduaren 7an** 19:00etan Herrigunean.

IGANTZI

**'Bide eginez. Nafarroako ikastolak 1969tik 1991 arte. Igantziko ikastola'**

**Abenduaren 7an** Juan Luis Larraza Eskolzarren (19:00).

**'Baztan-Bidasoa' liburuaz**

**Abenduaren 9an** 11:00etan Irrisarri Landen.

BERA

**'Herri batasunaren eraikuntza, errepublikaren defentsarako komiteak'**

**Abenduaren 10ean** 12:00etan Katakun, Esquerra Independentistaren eskutik.

**'Aulki hutsa, bizitza eta heriotza' doluari buruz**

**Abenduaren 14an** 19:30ean Beralandetan, Ainhoa Arburua psikologoarekin.

**'Baztan-Bidasoa' liburuaz**

**Abenduaren 15ean** 19:00etan, Beralandetan.

ARANTZA

**Nerabezaroa hizpide Baskulan**

**Abenduaren 14an** 16:00etan. Izen-ematea: 948 635036.

## Tailerrak

AMAIUR

**Zerri mondonga ikastaroa**

**Abenduaren 2an** 09:00etan elkartean. Izen-ematea: *hazitik hozie@gmail.com*.

IGANTZI

**Euskararen inguruko tailerra**

**Abenduaren 6an** 16:00etan Baratzondon.

**Haurrentzako saskigintza**

**Abenduaren 8an** 16:00etan Baratzondon.

**Haurrentzako perkusio tailerra**

**Abenduaren 9an** 16:00etan eskolan.

ELIZONDO

**Bizkarraren inguruko tailerra**

**Abenduaren 13an** Osasun Zentroan, 11:00etan. Izena: Elizondoko Osasun Zentroan.

## PROPOSAMENA

IGANTZI

### Kultur aukera zabala Igantziko Kultur Egunetan

Abenduaren 6tik 10era hainbat ekitaldi izanen dituzte Igantziko Kultur Egunetan: euskararen egoeraz hausnartzeko tailerra, Nafarroako ikastolen eta Igantziko ikastola izan zenaren inguruko hitzaldia, Mugaldekoak taldearen kontzertua, kantu-poteoa, saskigintza tailerra, *Azken saskia* dokumentalaren proiekzioa, opiljatea, perkusio tailerra, antzerkia, dantza saioa...



## Antzerkiak

DONEZTEBE
**'Gatz, Titiritortu basatia' txotxongilo emanaldia**
**Abenduaren 3an** 17:30ean zineman.

LESAKA
**'Ane eta ohe hegalaria' antzerki musikala**
**Abenduaren 5ean** 18:30ean Harriondoa Kultur Etxean.

IGANTZI
**'Putinen guardasola'**
**Abenduaren 9an** 21:00etan Baratzondon.

ARANTZA
**Eskolako haurren antzerkiak**
**Abenduaren 15ean** 14:30ean.

## Kontzertuak

BERA
**Tuterako Griseras eskolako abesbatza**
**Abenduaren 3an** 13:00etan elizan.
**Kontzertuak Katakun**
**Abenduaren 10ean** Amorante 20:00etan.
**Abenduaren 16an** Muskulo 23:00etan.

DONEZTEBE
**Mendi abesbatza**
**Abenduaren 3an** 13:00etan elizan.

ELIZONDO
**Elizondoko Musika Banda**
**Abenduaren 3an** 13:00etan Arizkunenean.
**Beira musika taldearen Margotu berria diskoaren aurkezpena**
**Abenduaren 10ean** 19:00etan Arizkunenean.

IGANTZI
**Mugaldekoak taldea**
**Abenduaren 7an** 20:00etan Baratzondon.

ARRAIOZ
**Baztango Musika Eskolako ikasleen Eguberrietako saioa**
**Abenduaren 19an** 17:00etan elizan.

## Dantzak

IGANTZI
**Herriko dantzarien saioa herrian barna**
**Abenduaren 10ean** 12:0etatik aitzinera.

## Zinema

IGANTZI
**'Azken saskia' film laburra**
**Abenduaren 8an** 18:00etan Baratzondon.

## Ospakizunak

LEITZA
**Pesta Torrean**
**Abenduaren 2an.**

ARESO
**Euskararen Eguna**
**Abenduaren 3an**. Egun osoko pesta.

SARA
**Urritasuna dutenei laguntzeko Telethon ekimena**
**Abenduaren 9an.**
**Ongi izatearen eguna**
**Abenduaren 10ean** Lur Berri gelan, 09:30etik 19:00etara. Sarrera urririk.

DONEZTEBE
**Santa Luzia feria**
**Abenduaren 10ean.**
**Titarearen ekimena**
**Abenduaren 13an.**

GOIZUETA
**Umore Ona Elkarteko bazkideen bazkaria**
**Abenduaren 14an.**

## Azokak

SARA
**Ekoizleen azoka**
**Larunbatetan** 08:00etatik 13:00etara frontoian.

ELIZONDO
**Baztango produktuen azoka**
**Abenduaren 2an eta 9an** plazan, 10:00etatik 14:00etara.

## Nire aukera



**Milagros NARBARTE**
Goizuetako Barrenetxekoa

### *«Bizitzeko aurrera begiratu behar da, baina nondik heldu garen ahaztu gabe»*

Goizuetan jaio eta bizi den 75 urte andrea dugu Milagros, «leitzea, pintura, telebista ikustea eta beste herrietako dokumental kulturalak ikustea» atsegin duena. Halere, aipamen berezia merezi du antzerki munduan egin duen lanagatik. Francoren denboran, euskarazko antzerkigintzan ibili baitzen. Ordukoaz «oroitzapen zoragarriak» omen ditu. Herritarren artean egindako antzerkia izan zen, eta askatasunik gabe ibiliagatik, arraskasta lortu zuten: «1962tik 1964ra bitarte hiru antzerki egin genituen eta horietako batekin Doneztebe, Ituren, Betelu, Arizkun eta Iruñeko Gaiarre antzokian izandu ginen». Gogoan du «arrunt garai zailak» zirela, «euskara hankapean zegoen eta zazpi lagun baino gehiagorekin bilera bat egiteko, Gobernu Zibiletik sinatutako paper bat behar izaten zen». Oztopoak oztopo, isilpeko lan hura jendaurrean erakutsi zuten. Baina garaiak aldatu dira, eta Goizueta ere «dena aldatu dela», uste du: «lehen, hiru edo lau lagunek agintzen zuten, eta gaur egun, denen artean antolatzen gara». Aldatu ez dena bere antzerkizaletasuna izan da. 20 urterekin aktore ibili zen neska hura, 55 urte beranduago *Goizuetan bada* antzezlanean aritu baita. Trabukoren ibilerak kontatuz, udan goizuetarrek egin duten antzerkian parte hartu du eta «oso babestua» sentitu zela dio: «denak gazteak ziren eta tartean hiru edadetu, 75, 78 eta 85 urtekoak. Denei eskerrak eta musu bana eman nahi dizkiet». Gehiago ere aitortu digu: «bertako jendearekin eta nire herria laguntzeko eta nolakoa den ezagutarazteko balioko balu, berriz saiatuko nintzateke antzerkian». Goizuetak «txoko eder eta polit asko dituela» ere adierazi digu, baina bat aukeratzekotan ez da urrutira joan: «gustura nago nire etxean. Lore, baratza eta frutekin egoten naiz». Edozein moduz, «nire ametsa Viena eta inguruak ikustera joatea» izan dela onartu digu. Herriko gazteei begira, esker oneko hitzak ditu: «badira ezbeharren bat gertatzen bada, beti eskua botatzeko prest daudenak. Segi dezatela horrela, eta Goizuetako euskara eta ohitura zaharrak zainduz». Argi baitu berak: «bizitzeko beti aurrera begiratu behar da, baina nondik heldu garen ahaztu gabe, hor baitago norberaren nortasuna».

> «Goizueta dena aldatu da. Lehen hiru edo lau lagunek agintzen zuten, eta orain, denen artean antolatzen gara»

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ELIZONDO**. Akullegi ka - rrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

**ITUREN**. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

**ARANTZA**. Herrigunean, etxea salgai, bi baratzerekin. ☎0033 641 814786.



**LEITZA**. 98m²ko pisua salgai: 3 logela, egongela, sukalde hornitua, komuna berritua, despen - tsa-garbigailua, balkoi batekin. Egurrezko ate eta PVCko leiho berriak. 23m²ko garajea + ganba - ra komunitarioa. 145.000 euro. ☎618 037964.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

**TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik**

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**ANIZ**. Hiru solairuko etxebizitza eraberritua errentan emateko. ☎676 194076.



## ETXEBIZITZAK
### errentan hartzeko

**BERA.** Familia bat pisu bila dabil errentan hartzeko. Urte baterako. ☎664 366447.

**MALERREKA edo BAZTAN**en granja edo baserri bat lurrarekin errentan hartu nahi dute. ☎658 015080.

## GARAJEAK/LOKALAK
### salgai

**DONOSTIA**. Garajeko marra salgai. ☎678 855056.

## LANA
### eskaintzak

Bi lagun behar dira Doneztebe eta Elizondoko **fruta-denda** batean lan egiteko. Bicali curriculuma: *kifrut@gmail.com*.

**LEITZA**. Piano irakaslea behar dute, astean behin etxera etorriko dena. ☎608 776899.

**ELIZONDO**. Bidegain arraindegian berehala lanean hasteko prest dagoen langilea behar dute. Lan finkoa, astearte-tik larunbatera goizez aritzeko. Ezinbertzekoa da gida-baimena izatea. Deitu, dendara joan edo curriculuma bidali: *info@pescadosbidegain.com*. ☎606 585163/ 948 580496.

**HAZPARNE** (Lapurdi). Ardi eta behien baserri batean gazte bat behar dute, lehenik laguntzeko eta gustura baldin bada, etxekoekin negozioan segitzeko. ☎0033 698 313701.

## LANA
### eskariak

**Baztan eta inguruan lan bila**. Zerbitzari, saltzaile eta teleoperadore izana. Informatika aplikazioekin eguneratua. Esperientzia haundia du bezeroentzako arretan. Pertsona arduratsua, aktiboa eta gaitasun komunikatiboekin. ☎630 452189.

**BAZTAN eta INGURUAN**. Garbiketan aritzeko eta adinekoak eta haurrak zaintzeko lan bila. Esperientzia zaintzan eta garbiketan. ☎644 778212.

**BAZTAN eta INGURUAN** gizonezkoa lan bila. Mendiko lanetan, soroetan eta abeltzaintzan esperientziaduna. Adinekoak zaintzeko ere prest. ☎631 837171.

Mutil batek **edozertan lan** eginen luke, baita baserrian eta aziendekin ere. ☎631 876901.

Gizonezkoa lan bila, **adinekoak zaintzeko** interno bezala edo orduka. Fisioterapiako ikasketak dituena eta esperientzia zaintza arloan. ☎612 421818.

## MOTORRAK
### salgai

2007ko **Renault clio campus**a salgai; 166.000 kilometro ditu eta egoera onean dago. ☎610 058611.



## DENETARIK
### salerosketak

Bigarren eskuko **trikitixaren funda** erosiko nuke. ☎647 810147.

**ARANTZA**. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 41 €

**Zerri gizena**
1,038€ kiloa.

**Zerramak:**
0,560 € Kg/bizirik.



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak:** | **€/k Kanal** |
|---|---|
| **Extra** | 4,35 |
| **1.koa** | 4,13 |
| **2.koa** | 3,93 |
| **Urruxak:** | **€/k Kanal** |
| **Extra** | 4,37 |
| **1.koa** | 4,23 |
| **2.koa** | 3,83 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 8,00/8,60
8-10 kilokoak: 6,20/6,90

**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎948 585036.

**Sukaldeko egurrezko ekonomika** salgai. Egoera onean eta gutti erabilia. ☎644 907779.

## ANIMALIAK
### salgai

**Border Collie zakurkumeak** salgai. Arrazakoak, ama eta atta artzain zakur onak. ☎639 708414.



## ANIMALIAK
### oparitzeko

**LEITZA.** Hiru zakurkume oparitzeko. Hirurek emeak. Ama ardi-zakurra dute. ☎948 510224.









# PLAZAN BAZAN




## DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.



## EKAITZA

Ordena itzazu paperezko itsasontziak handitik txikira



## INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

## SUDOKU KOLORETSUA

Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Gogoratu kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.



Hauek dira aukerak:









## AMAIUR, 1512

Aspaldi iragandako gertaera dela gogoan hartuta, badira gutxienez sei elementu irudi honetan aurkitu beharko ez genituzkeenak, gehienak artean asmatu gabeak zirelako. Zeintzuk dira?

# urtebetetzeak

Argazki soila: **5€**; bikoitza: **10€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Berako Nahia Endarak 8 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik.



Urrozko Intza Iribarren Elizaldek 3 urte bete ditu azaroaren 28an. Zorionak eta muxuak prexioxa atautxi, amatxi eta amatxi Joxeparen partetik.



Kattalin Mindegia Aranburu gure itxeko ttikienak 3 urte beteko ditu abenduaren 11n. Mila zorion Lesaka eta Beintza-Labaiengo familien partetik!



Sunbillan bizi den Hondarribiko Ibai Muñozek azaroaren 16an urteak bete zituen. Zorionak Sunbillako familia guztiaren partetik.



Sunbillako Nahia Vertiz Babacek 8 urte beteko ditu abenduaren 14an. Zorionak motorista! Muxu bat Sunbillako eta Urrozko familiaren partetik.



Aunitz urtez Intza! Gure mononak 5 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Bortz muxu haundi bihotza, eta ongi ongi pasa zure eguna!



Lesakako Naroa Otero Telletxeak 5 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak mattia zure familiaren, eta bereziki aita eta amaren partetik.



Joanes Pinillos Auzmendik 3 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak eta urte askoz gure etxeko ttikiari! Muxu potoloak aita, ama eta Kattalinen partetik.



Manzanoseko Nahia Martin Portuk 7 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez gure pataterari familia osoaren, eta bereziki Lesaka eta Leitzako lehengusu eta lehengusinen partetik.



Igantziko Beñat Telletxea Seinek 7 urte beteko ditu abenduaren 1ean. Aunitz urtez! Muxu haundi bat etxekoen partetik.



Igantziko Izaro Urtxegi Rodrigok 4 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat etxeko sorginari familia guziaren eta berexiki zure anaia Unaxen partetik!! Berendu goxo-goxoa prestatu!!






**Ttipi Txartelarekin beti irabazten da!**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

**www.ttipitxartela.info**

**698** aleko irabazleak >




# ZOZKETAK

**Lesaka Kiroldegia - 2 sarrera**
Ainhoa Alzuri Ordoki | ARANTZA
**Irrisarri land - 2 sarrera**
Cristobal Bengoetxea Jaurrieta | ARRAIOZ
**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Pedro Larretxea Bertiz | LEGASA
**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Mª Jesus Jauregi Juantorena | EZKURRA
**Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Tomas Santxotena Urrutia | ERRATZU
**Arkupe - Lote bat**
Mª Jesus Torres Ondikol | ETXALAR
**Baga-Biga musika - CD bat**
Pili Ziganda Larraburu | LEITZA
**Baga-Biga musika - CD bat**
Orreaga Irigoien Pedroarena | GARRALDA

2 tiket




**BKZ ABENTURA**
www.navarraaventura.com

2 sarrera




**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera




**DONOSTIAKO AQUARIUMA**
www.aquariumss.com

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**
www.eurekamuseoa.es




2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**BUATXABAL**
www.buatxabal.com




Kamiseta bat

**OKILLE TAILERRA**
www.okilletailerraesp.blogspot.com




Eguzkilore bat

**LIBURUAK**




**Asmakizun txikiak**
- Boligrafoa
- Pizza

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

**LAGUNTZAILEAK**




www.elkar.eus




www.turismozugarramurdi.com

# DONEZTEBE

## Hasi dira MALERREKA PROMOZIOAK promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

### Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai

**ZURE BEHARREN ARABERA, 2 eta 3 logelako etxebizitzak.**

**Zuk erran eta guk egin!**

**58 m²koak:**
sukaldea/egongela,
2 logela, 2 komun.

**74 m² eta 90m² ingurukoak:**
3 logela, egongela,
sukaldea eta 2 komun.

**135.000 €tik goiti**



**Ez galdu aukera!**







- ✓ 2017ko abenduaren 31 baino lehen erositakoek Nafarroako Gobernuaren **diru-laguntza** jasoko dute **(%15-18 artean)**
- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran:** egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

### Informa zaitez

**EZKAIN ERAIKUNTZAK**
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**
**629 951 170**

**LOKALAK ere baditugu, txoko, garaje edo lokal komertzialak egiteko**